



**Hasi dira
Kinto ospakizunak
Burundan** / 11-14



**Dorraoko Kontzejua
alokairuko
etxebizitzak emateko
araudia prestatzen
ari da** / 7

**Ihabarren, Irañetan
eta Ziordian
abiaraziko dituzte
ibarreko ihote
ospakizunak** / 14

**Iker Mintegik
profesional mailan
bere lekua aurkitu
nahi du; debutarekin
pozik dago** / 18-19

**Idoia Granizo
Uribarrena
altsasuarrak Egile
Berrientzako saria
irabazi du** / 23

SINADURAK



SAKANA
TRENAREN
ALDE / 5



ANDREA
CARRILLO
JUANBELTZ / 5



ZIORDIKO
LIBURUTEGIA
/ 22



Ordezkarari politikoak eta liburuzainak ekitaldi instituzionalean.

Herriaren lagun zaharra

Altsasuko herri liburutegiaren 90. urteurrena da. Nafarroako lehenengo liburutegi publikoa izan zen. Bederatzi hamarkadetan toki desberdinetan egon da, eta gaur egun literatura, jakintza, hezkuntza eta kultura tenplua lortia kultur gunean dago

Alfredo A. I. eta Erkuden R. B.

ALTSASU

"Gora liburutegia!" oihuarekin alde egin zuen iraganeko, gaur eguneko eta etorkizuneko arima denak, Eva Azpilikueta aktorearen paperean, Altsasuko udal liburutegiaren 90. urteurrenaren instituzio ekitalditik. Haren bidez Nafarroako lehenengo liburutegi publikoaren historian zehar bidaia egin zuten bertaratu zirenek. Ekitaldian ere administrazioaren ordezkariak egon ziren: Iñaki Apeztegia Morentin Nafarroako Gobernuako Kulturako Zu-

zendari Nagusia, Asuncion Mestro Pegenaute Nafarroako Liburutegi Sareko Zuzendari Nagusia eta Javier Ollo Altsasuko alkatea. Nola ez, tokiaren "zaindaria" nekazazinek ere parte hartu zuten ospakizunean: Mari Luz Oyarbide eta Elena Ariztorena liburuzainak.

ALTSASUKO UDAL LIBURUTEGIAREN 90. URTEURRENA IZAN ZEN ILBELTZAREN 28AN

Ilbeltzaren 28an bete zituen Altsasuko liburutegiak 90 urte. "Oraintxe bertan laurogeita hamar urtetik gorako umetoki baten barruan gaude; ez da marabillosoa?", esan zuen Azpilikueta irudikatzen zuen arimak. "Begiak ixten baditut ikus dezaket, irudikatu dezaket, haurrak bere liburutegiko bere lehenengo txartelarekin emozionatuta, ikusten ari naiz azkeneko azterketak prestatzen ari diren gazteak, helduak haien eguneroko gauzak ahazten, eta ikus dezaket ere liburu baten orrialdetan galtzen diren adineko jendea". Altsasuko

liburutegia, jarraitu zuen, liburu betetako toki bat baino gehiago bada. "Nire laguna eraikin bat baino gehiago da. Bera izan da, da eta izango da gure herriko bihotza. Gure adimenak gidatzen duen itsasargia, arima bitxien aterpea".

Historia

Hitzaren boterean sinisten zuten "ameslari" batzuen buruan zegoen proiektu bat izan zen Altsasuko herri liburutegia. 1931. urtetik 1939. urtera izan zen Espainiako II. Errepublikaren testuinguru historikoa sortu zen. Garai horretan hirietan bizi zirenen artean prestakuntza "nahiko" garatu zen, baina ez zen herrietan eta landa eremuetan berdingeratzen.

"Egoera horri buelta emateko 1931eko maiatzaren 19an misio pedagogikoak sortu zituzten; bere helburua landa eremuetan liburutegi txikiak sortzea zen, behin betikoak edota mugikorrak". Misio pedagogikoen ba-

"ERAIKIN BAT BAINO GEHIAGO BADA; BERA IZAN DA, DA ETA IZANGO DA GURE HERRIKO BIHOTZA"

rruan liburutegiak ez ezik, herrietara antzerkiak, zinemak, eskoletara liburu loteak eta abar eramaten zituztela azaldu zuen Azpilikueta gorpuztu zuen *Arima-k*. Misio hauei buruz eta Espainiako II. Errepublikaren garaiko liburutegiei buruz gehiago jakiteko otsailaren 9an, ostirala, hitzaldi "oso interesgarria" izango dela gaineratu zuen.

Ibilbide historikoarekin jarraituz, 1931eko azaroaren 21ean Espainiako Gobernuak Liburutegi Publikoetarako Liburuen Trukerako eta Eskuratzeko Batzordea (gaztelaniaz, *Junta de Intercambio y Adquisición de Libros para bibliotecas públicas*) sortu zuen. Batzorde honen helburua liburutegi sare "indartsu" bat sortzea eta sustatzea zen. "Nola? Udal liburutegien sorrerarekin".

1934

1930ko hamarkadan Altsasuk gutxi gorabehera 3.600 biztanle zituen. "Gure herria Nafarroako lehenengo herri industrialia izan zen, eta trenaren etorrera ere oso garrantzitsua izan zen. Haren bidez jendearen eta ideien joan-etorriak sustatzen ziren". Fundiciones Alsasua eta Cementos empresa garrantzitsuak zeuden dagoeneko, "eta gure herria oso toki garrantzitsua zen". Antzerkia, zinema, kasino eta banda zituen, "marabilla bat".

1932ko abenduaren 12an Altsasuko Udal Liburutegiaren batzordea sortu zuten "oso pertsona garrantzitsuek": Udalbatzaren ordezkari Luis Goikoetxea alkate eta Felix Arnaiz zinegotziak zeuden, eta narbarmendutako pertsonen artean Constatino Salinas diputazioko presidentea, Domingo Lumbier mediku titularra, eta don Antonio Garcia Lopez maisua. Batzordearen sorrera Altsasuko liburutegiaren akta liburu "zahar" batean jasoa dago, "originala; altxor bat", ongi gordetu behar dena. Otsailaren 29ra arte dokumentu, liburu eta abar zaharrekin osatutako erakusketan erakusgai egonen da.

1934ko urtarrilaren 28an Altsasuko udal liburutegia mustu zuten. Lehenengo liburuzaina Enrique Goicoa Arilla izan zen, ogibidez maisua zena, eta lehenengo liburutegi hura gaur egun Gure Etxea eraikinaren lehenengo solairuan zegoen, garaiko udaletxean. "Ondoren gure protagonistak bere abentura hasi

zuen eta denborarekin lekualdatzen joan zen". 1950ko azaroaren 24an Altsasuko liburutegia Nafarroako Liburutegien Sarean sartu zuten, 1946. urtean Principe de Viana erakundeak 1946. urtean sortu zuen programaren bidez. "Garai horretan liburutegia Domingo Lumbier eskoletan zegoen. Hortik gaur egungo udaltxeko gela batera pasa zen, eta ondoren 1985ean Garbitoki eraikinaren bigarren solairura lekualdatu zen", jarraitu zuen kontatzen.

2000ko lehenengo hamarkadaren hasieran Iortia kultur gunean gaur egungo liburutegia zabaldu zuten; "bere garaietara egokitu-tako toki batera iritsi zen".

"Izugarrria zenbat bizi izan duen nire lagunak urte hauetan. Aretotxiki batean Enrique Goicoak 300 liburuen artean egotetik, gaur egun arte; eta ezin dugu ahaztu bi emakume bikainen lana. Tebasuko liburutegia Egiptoko erregeak zaintzen zuen bezala, Altsasuko liburutegia zaintzen dutenak: Mari Luz Oyarbide eta Elena Aristorena liburuzainak. Beraiengatik ez balitz, zer izango zen toki hau?". Azpilikuetairen iraganeko, gaur egungo eta etorkizuneko arimak herriaren, altsasuarren, laguntza goraiatu zuen ere, "belaunaldi bakoitzak bere arrastoa utzi du. Zuek ere espazio hau sortu duzue".

Etorkizuna

Etorkizuna ilusioz eta promesez beterik dagoela esan zuen arimak, eta garaiak aldatzen badira ere irakurketarako maitasuna "inoiz baino handiagoa" izaten jarraituko duela gaineratu zuen. "Kopa imajinarioak igo eta Lorcaren hitz batzuekin amaituko dut: Kultura, bakarrik bere bidez fedez gainezka dagoen, baina argia falta duen herriaren arazoak konpon ditzake. Gizakia ez da bakarrik ogiz bizi, ni gose banintz eta kalean babesgabe egongo banintz, ez nuke ogia eskatuko; ogi erdia eta liburu bat eskatuko nituzke".

Ibeltzaren 26an egindako 90. urteurrena ospatzeko ekimenean liburutegia bera izan zen protagonista, baina beste bi izen propio izan ziren aipatuena Mari Luz Oyarbide eta Elena Aristorena liburuzainak izan ziren ere. Oyarbide veteranoena da; 1990. urtetik Altsasuko liburutegiaren liburuzaina da. Beranduago hasi bazen ere, Aristorenak laster

hogei urte beteko ditu liburuzain; 2005ean hasi zen.

Liburuzainak baino, arimen "erizainak" direla esan daiteke. Izan ere, Oyarbidek ekitaldian adierazi zuen bezala, "Trajanoren liburutegian inskripzio agertzen da: Arimendako ospitalea; Egiptoko Tebaseko liburutegian ondorengoa: Arimarako sendagaia". Ez da gutxi.

Aristorenak "pribilegiatuak" sentitzen zirela esan zuen: "Liburutegitik pasa den jende guztia ordezkatzegatik; lan egin dutenak eta zerbitzu publiko hau hainbeste urtez erabili izan dutenak ere". Liburutegia organismo publiko bat dela azaldu zuen, "1934. urte hartatik gaur egun arte aldaketa askorekin iritsi da, herritarren eskaeretara moldatuz". 300 liburuekin eta udalak emandako *Espasa* entziklopediarekin hasi zen, eta gaur egun 45.000 mota desberdinetako dokumentu ditu. 2023. urtean 38.600 pertsona inguru pasa ziren "primerako instalazioetatik", eta 12.754 mailegu eman ziren.

Espainiako II. Errepublikako gobernu horrek Liburu Publikoendako sortutako liburu funtsaren sorkuntzarekin kulturagatik apustu egin zuela gaineratu du Aristorenak, "liburutegien sorrerarekin kultura herritar guztiengana iristea lortu zutelako". Hortaz, Altsasuko liburutegiaren bederatzi hamarkadetan izan diren udalei eskerrak luzatu zien liburuzainak, "herritarrekin bat egiten duen zerbitzu bat izateagatik". Nafarroako Gobernuari eta garaiko Diputazioari ere eskerrak eman zizkien, duela 90 urte irakurketari "sustapen handia" eman zion Nafarroako Liburutegien Sarea sortzeagatik.

Es Kerrak

"Baita Nafarroako liburuzain guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki gure aurretik egon diren liburuzainei". Enrique Goicoa lehenengo liburuzainaren ondoren Felisa Guerrero Urbieta sartu zen 1951an; 1953. urtera arte haren lekuko Pilar Rodriguez Bordak hartu zuela. Maria Bergera izan zen Altsasuko liburutegiaren hirugarren liburuzaina 1956an, eta ia hamarkada beranduago, 1965ean, Francisco Fernandez Celaya izan zen liburuzaina urte batez. Carlos Serrano Urrozek hartu zuen



Mari Luz Oyarbide eta Elena Aristorena liburuzainak liburutegiaren akta liburuarekin.



Javier Ollo Altsasuko alkatea ekitaldian.



Asuncion Maestro Nafarroako Liburutegien Sarearen Zuzendari Nagusia ekitaldian.

**MARI LUZ OYARBIDE
ETA ELENA
ARISTORENA DIRA
ALTSASUKO
LIBURUZAINAK**

**ENRIQUE GOICOA
MAISUA IZAN ZEN
LEHENENGO
LIBURUZAINA, ETA
GURE ETXEAN ZEGOEN**

ondoren zerbitzua, 1975ean Margarita Iglesias Mendiluce liburuzain sartu zen arte. Maria Irene Goicoechea Lopez 1978etik aurrera izan zen liburuzain, 1990an Mari Luz Oyarbide sartu zen arte, eta 2005etik Aristorena eta Oyarbide dira Altsasuko bi liburuzainak. "Haien lan onari esker disfrutatu dezakegu liburutegi honetaz".

Liburutegia liburuak gordezke baina gehiago bada, "herritarren topagunea" dela esan zuen Javier Ollo Altsasuko alkateak. "Herri zerbitzu bat, herritarrek oso ongi baloratzen dutena". Kulturak, jakintzak, literatura eta pertsonen prestakuntza integralak tokia duen espazio bat eta herritar guztiendako eskuragarri izango zena bezala sortu zuten; "duela 90 urte udalak argi izan zuen, bazekien kultura, hezkuntza eta trebakuntza ezinbestekoa zirela gizarte osatzen duten pertsona osatuak, intelektualki trebatuak eta aske izateko". Elkargune bat ez ezik, "liburutegia, gehienbat, kultura da, eta kultura ezinbestekoa da pertsonen garapen pertsonalean, baita garapen kolektiboan gizarte bezala ere". Horregatik Iortia kultur gunea liburutegia egoteko "toki egokiena" dela gaineratu zuen alkateak. Garaiko udalak baliabide urriekin jarri zuen martxan zerbitzua, "udal horren lana goraiatu nahi dut", hark izan zuen "ikusmen berritzaileagatik". Neil Gaiman idazlearen hitzekin amaitu zuen alkateak: "Liburutegiak zibilizazioaren eta arlotekeriaren arteko lerro mehe gorria dira".

Zerbitzua

Altsasuko liburutegia bizirik dagoen zerbitzu bat da. Iñaki Apeztegia Nafarroako Kulturako Zuzendari Nagusiak altsasuararak "eskertu" nahi izan zituen, "posible egiten dutelako areto honetan ikusten dena".

Erreferentziazko zerbitzua bihurtu da herrialdean. 5.234 bazkide ditu, eta mugimendu asko du: prentsa irakurtzeko txokoa, ikasteko txokoa eta ordenagailuak eta teknologia berriak herriari gerturatzeko txokoa dauka ere. Liburutegiaren zerbitzuen artean ere irakurzaletasuna eta irakurketa sustatzea da, eta gaur egun hiru irakurle talde daude martxan; 1992. urtean sortu ziren Emakumearen Bilguneak sustatuta.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

« AURREKO ORRIAN HASI DA

Gaztelaniazko bi talde daude, 26 kiderekin, eta euskarazkoa, hamabost irakurlerekin, 2019an sortutakoa.

Altsasuko liburutegia ez ezik, Altsasuko erreferentzia kulturala dela ere aipatu zuen Apeztegiak, "ez bakarrik duen potentzia sozialagatik eta bere kolektiboen-gatik, baizik eta kultur gune honengatik, eta bertan egiten diren programazioengatik ere". Nafarroako Gobernuaren konpromisoa Nafarroako Liburutegien Sarea sustatzen jarraitzea dela esan zuen, "1930ko hamarkadan zailtasunak egon ziren, gaur egun beste batzuk dira zailtasunak; inor ez dago zailtasunetatik urrun. Baina lanean ari gara zerbitzuko hauek sustatzeko, eta urte luzez jarraituko dugu". Liburuzainen lana eskertu zuen ere.

Osagaiak

"Ez da normala liburutegi baten 90. urteurrena ospatzea. Niretako oso garrantzitsua da", esan zuen Asuncion Maestro Nafarroako Liburutegien Sareko Zuzendari Nagusiak. Garrantzitsua da, bere hitzetan, ez bakarrik Altsasuko liburutegiendako eta bere herritarrendako, baizik eta sarearendako ere: "Gure herrialdeko kulturarako, orokorrean". Liburutegiaren historia "memoria" dela aipatu zuen, eta Nafarroako Liburutegien Sarea erakunde "sendoa" dela esan zuen: "hemen ditugu sustraiak". Laster mendeurrena izango dela, eta prestatzen joateko esan zien liburuzainei eta herritarrei. "

Altsasuko liburutegiaren sorrera Nafarroako memorian ezinbesteko mugarrria dela esan zuen Maestrok: "Sortu zelako haien sustatzaileen konbentzimendutik; urte zail horietan ziur zirelako kulturak eta irakurketak herritarrek garatzen zituztela. Gaur egun oraindik ere konpartitzen dugun konbentzimendua". Horregatik liburutegien sarea gizartean "ezinbestekoa" da. "Horrela errekonozitzen dute herritarrek".

Liburutegiek bi osagai behar dituztela esan zuen Maestrok: emozioa eta konpromisoa. "Konpromiso bat den emozioa. Momentu hau hunkigarria delako". Lekualdaketa, transformazio eta adaptazio asko izan ditu, "baina, betiere, konpromisotik".

Liburutegien sorrera izen propio asko daudela aipatu zuen



Eva Azpilikueta aktoreak liburutegiaren historia kontatu zuen 'Arima' izan zen.



Iñaki Apeztegia Kultura Zuzendari Nagusia ekitaldian.



Altsasuar asko gerturatu ziren ospakizunera.

Liburutegien Sarearen zuzendaria, baina bat aipatu zuen: Maria Moliner: "Espainiako II. Errepublikan liburutegien sarea sortu zuen lehenengo emakumea". Datu bat eman zuen: garai horretan 5.522 liburutegi publiko zeuden espainiar estatuan; 4.570 gaur egun. "Mila falta dira".

Amaitzeko, Maestrok ospakizuna liburu batekin lagundu zuen, hain zuzen, Maria Molinerrek udal liburutegietarako sortutako gida bat, 1937an. "Liburuzain batek behar duena da bere misioan sinistea da".

Ospakizunak jarraitzen du


Altsasuko liburutegiaren 90. urteurrena ospatzeko ilbeltzaren 26an egindako instituzioekitaldian, bederlatzi hamarkada hauetan jasotako dokumentu, liburu eta bestelako objektuen erakusketa mustu zuten ere, liburutegian bertan, otsailaren 29ra arte ikusgai egonen dena, liburutegiaren ordutegian (14:00etatik 20:00etara).

Urteurrena ospatzeko ere egitaraua osatu dute liburuzainek, eta ilbeltzaren 31n hasi, eta otsailaren 7an eta 14an, asteazkenak, 17:30etik 19:30era, Manolita Thunders artistarekin Letrak marrazten dibertitzea tailerra izanen da, Iortia kultur gunearen erabileran anitzetako gelan. Ekimena elebitan izanen da.

Gaur, otsailak 2, ostirala, 18:00etan, Karmele Jaio idazlearen *Fikzioaren egiak* hitzaldia izanen da, euskaraz, Iortia kultur guneko areto txikian, eta otsailaren 9an, ostirala, 18:00etan Reyes Berruezoren *Las Segunda República y la creación de las Bibliotecas. De las realizaciones a la posterior represión* hitzaldia izanen da. Bertan Enrique Goicoa Altsasuko lehenengo liburuzainaren alaba Maria Angeles Goicoak parte hartuko du ere. Hitzaldia gaztelaniaz izanen da.

Otsailaren 16an, ostirala, 17:00etan, *Txiki: gauza handiak lortzen dituzte pertsona txikien istorioa* Adriana Olmedoren hurrendako ikuskizuna izanen da, euskaraz, Iortia kultur gunearen areto handian. Sarre-rak lau eurotan eros daitezke, kultur guneko webgunean eta txarteldegian.

Ospakizun ekimenekin amaitzeko apirilaren 23an (Liburuaren Eguna), asteartea, 19:00etan, Angeles Caso idazlearekin topaketa izanen da, Iortia kultur gunearen areto nagusian.



ASTEKOA

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

Inklusioa dela eta ez dela

Azkenaldian gai batek haserretzen hasi nau. Elkarrekin bizitzekoan, gizartean barrena dauden arauak irentsi egiten gaituzte, edonori balioa errez eman ala kenduz. Leku bat eman zein kentzen diguten arauak. Hobe esanda, guk geuk arau horiek geureak egin eta martxan jartzen ditugu, joko makabro honen partaidetzat. Bestearen tokia erabakitzeak, nirea adieraziko balu bezala, denbora baterako nire burua salbu utziz.

Horiek horrela, inklusioaz ari garenean, hitza gustatzen omen zaigu. Ordea norbait sartzeko saiatu behar bagara, kanpoan dagoela jabetu beharko ginatke. Horrela gertatzen da normala ez den beste horrekin, normaltasun horren konstruzioa guztion ardura delarik. Hala gertatzen da homosexualarekin, mairuarekin, beltzarekin, ijitoarekin, yonkiarekin, pobrearekin, trans ala genero ez-bitarrarekin, gizenarekin, itsusiarekin, ezgaituarekin, sexu langilearekin, bakarrik bizi, bikotekiderik ez, baita kuadrillarik ez

GURE ARTEAN BEREIZIZ, BOTERE BAT LORTZEKO HELBURUAREKIN, BESTEEN GAINETIK

bereiziz, botere bat lortzeko helburuarekin, besteen gainetik. Sozialki ordena bati eusten dion boterea, noski. Nork bere burua salbatzera! Zapaldu behar bada, zapaldu. Baztertu behar bada, baztertu. Izan ere, ea nor den kanpoan geratzen den ausarta!

Azken batean, denok nahi dugu onartuak izatea. Edo baztertuta ez sentitzea, gauza bera baita. Kosta ala kosta, nire nortasuna bera sakrifikatu arren.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

AHTaren aurrean Alternatiba

SAKANA TRENAREN ALDE PLATAFORMA

Heldu den apirilaren 20an Nafarroako trenaren aldeko plataformek Arabako eta Goierriko taldeekin batera manifestazio izugarria burutuko dugu Altsasun. Gure helburua argia da: AHT plataforma berri bat egin ordez, gaur egungo tren azpiegiturak hobetu behar dira eta tren zerbitzuak handitu, azken urteetan ixten joan diren geltoki eta geratokiak, atzera berriz ere, irekiz. Honela, betiko tren azpiegitura berrituaren gainetik mota guzietako trenak ibiliko dira AHTarendako plataforma berri batek suposatzen duen triskantza ekonomiko eta batez ere ekologikoari bidea itxiz.

Manifestazioari indarra emanez, jardunaldi interesgarriak egingen ditugu otsailaren 22 eta 25 bitartean. Jardunaldi hauetara etorriko zaizkigu, besteak beste, trenaren aldeko plataforma estatalaren ordezkariek, Ipar Euskal Herriko CADE elkartekoak, Italiako Val di Susako ordezkaritza zabal bat eta AHT Gelditu! eta Sustrai Erakuntza Fundazioko kideak, beste hainbat talde eta ekimenekin batera. Egitarauari adi egotera eta jardunaldietan parte hartzera animatzen zaituztegu.

AHTaren plataforma berri baten ordez, gaur egungo tren hobetzea eta sustatzea aldarrikatzen duten

erakundeak geroz eta gehiago dira. Erakunde publikoen fiskalizazioa egiten duen AIREF erakundeak AHT lerro berrien proiektuak eten behar zirela aldarrikatu zuen 2020an. 2021ean hauxe bera eskatu zuten RENFE eta ADIFeko enpresa komitean dauden sindikatu guztiek. Madrilgo gobernuak Teruel hiriburuariki eta Logroñori, AVE zerbitzuak betiko tren azpiegituratik helduko zaiela erabaki du. Sakanan Altsasuk salbu, beste udal guztiek AHT plataforma berria errefusatu dute, eta betiko trenaren zerbitzuen handitzea eskatu.

Bukatze aldera, gogora ekarri nahi dizuegu ingeniari talde batek Nafarroa, Araba eta Burgos lotzen duen tren lerroaren hobekuntzaren proiektu tekniko egin zuela duela ia bi urte eskualde horietako trenaren aldeko plataformek eskaturik (Sakanakoa tartean) eta alternatiba proiektu honek mota guzietako trenak bertatik joatea ahalbidetzeaz gain, AHT plataforma bat egitea baino merkeago, ekologikoago eta sozialki beharrezkoago dela ondorioztatu zuen.

Batu zaitetze Alternatibara!



OBJEKTIBOTIK



Inixio @inixio

Badakit arazoa beste bat dela, baina "Altsasua" idatzi dute 🤔🤔
Altsasu, mesedez

Julen Gabiria @gabiriakopa - urt. 26
Borroka galdueetatik gatz

24KO IBILBIDEA

- Banakako erlojupeko batekin hasiko da
- Itzulia Frantziara itzuliko da
- Itzulia Basque Country lasterketaren 63. edizioak 832,10 km izango ditu

Gaur, urtarrilak 26, Itzulia 2024 lasterketako ibilbide ofiziala aurkeztu da. Aurkezpena gaur egin da luongo udalareko bilkura anetoan; izan ere, lehen etapa eta bigarren etaparen hasiera bertan izango dira. Lasterketaren 63. edizioak muga

RENDATE I FUERTES 22 SPRINTS 10

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu



Altuera gehien irabazi duen herria izan da Arruazu. ARTXIBOA

Herrien altuera ofiziala aldatu egin da

Ibarreko lau herri itsasoko mailatik 2022an baino altuago daude gaur egun, zortzi beherago eta hiruk bere altuera mantentzen dute

SAKANA
Klima aldaketaren eraginez itsas maila igotzen ari da. Baina hori ez da herrien altuera aldarazi duena. Nafarroako Estatistika Institutuak, Nastatek, neurtzeko metodo berria jarri zuen indarrean joan zen urtean. Aldaketa egin du "altuera datu zehatzagoak" jaso ahal izateko. 2021era arte udaletxeetan zegoen marka bat hartzen zuten kontuan altuera zehazteko. Eta halakorik ez bazegoen bestelako bideak erabiltzen zituzten. Aldaketaren ondorioz erreferentzia puntua udal txeko sarbideko kaleko kotara aldatu dute.

Beraz, herriek 2022an zuten altuerarekin konparatuta, altuera aldaketak izan dira Sakanako hamabost udalerritatik hamabitan. Ondorioz, Arruazu hoge metro altuago dago, Arakil dozena bat metro beherago eta Ergoiena zortzi metro beherago. Arakilen kasuan Itsasperi da altuera neurtzeko erreferentzia eta Ergoienan, berriz, Lizarraga.

Hala jaso da Nastatek argitaratzen duen Izendegian. Etengabe eguneratzen den datutegi horretan, besteak beste, hainbat ezaugarritan izandako aldaketak ikusteko aukera dago, esate baterako: erroldatutako biztanleria, azalera edo altitueda.

Sakanako udalerrien altuera berria

Herria	Desberdintasuna	2024
Altsasu	+1	528
Arakil	-12	464
Arbizu	-1	497
Arruazu	+20	449
Bakaiku	-1	519
Ergoiena	-3	608
Etxarri Aranatz	0	509
Irañeta	-1	464
Irurtzun	0	464
Iturmendi	-1	528
Lakuntza	-1	489
Olatzagutia	+1	541
Uharte Arakil	-1	471
Urdiain	0	553
Ziordia	+1	553



Telebistako urrutiko agintzarekin sintoniza daitezke kanalak. UTZITAKOA

Lurreko Telebista Digitalaren emankizun estandarrei adio

Otsailaren 14tik aurrera bereizmen handian emititu beharko dute telebista kanal guztiek

SAKANA
Lurreko Telebista Digitaleko (LTD) kanal guztiak nahitaez hasi beharko dira emititzen bereizmen handian (HD, ingelesezko laburdura) otsailaren 14tik aurrera. Beraz, egun horretatik aurrera desagertu egingen dira kalitate edo definizio estandarreko kanalak (SD, ingelesezko laburdura), irrati maiztasunen espektrotik kanpo geratuko dira eta ez dira sintonizatuko. Bereizmen handiko LTDk irudi kalitate handiagoa eta soinu ingurutzaila eskainiko ditu, telebista ikusteko esperientzia hobetuz. Irudiari dagokionez HD pantailak, gutxienez, 1.280 pixel horizontal dituzte 720 pixel bertikal eskainiko dute.

Etxeetan gaur egun dauden telebisten %98 baino gehiago dagoeneko gai dira bereizmen handiko kateen emanaldiak sintonizatzeke. Beraz, etxean telebista dutenek egin beharreko aurreneko pausoa dajakitea haien telebistak emanaldi berriak hartzeko gai den edo ez. Telebista berriak horretarako gai dira, ez horrela zaharrak. Zalantzarik izanez gero, produktuaren fabrikatzailearen bezeroarendako arreta zerbitzuarekin edo dagoen produktuaren banatzailearekin harremanetan jartzea gomendatu dute, etxeko telebistak HDRa beharrezkoak diren ezaugarri teknikoak dituela ziurtatzeko. Aparailua ez bada bereizmen handiko emanaldiekin, bi aukera daude. Aurrena, HD ahalmena duen deskodegailua

edo sintonizadorea erostea. Gailu horiek antena kablara eta telebistara konektatzen dira, eta LTD seinalea bereizmen handiko formatuan jasotzeko aukera ematen dute. Erabiltzaileek satellite bidez jasotzen badute LTD zerbitzua, deskodetzailea beharko dute. Atzena, telebista berria erostea.

Kanalen emisio estandarra desagertuko denez, ez da haiek ikusteko aukerarik izanen. Horregatik, telebista bereizmen handiko LTD hartzeko gai bada, kanalak berriro sintonizatu beharko dira. Telebistako urrutiko agintean bada horretarako botoi bat. Orokorrean urrutiko agintean "Menua" sakatu behar da, segituan "Konfigurazioa" eta "Kanalak bilatu", azkenik, "Sintonizazio automatikoa" aurkitu eta sakatu. Bilaketa automatikoko prozesu horrek minutu batzuk behar ditu. Kateak berriro sintonizatzea ekintza erraza da, kosturik gabekoa eta telebista batzuetan automatikoki egiten da. Prozesua despedituta telebista kanalak nahi bezala ordenatzeko aukera izanen du ikusleak.

Zalantzarik izanez gero, Television Digital webgunean edo 901 20 10 04 telefonoan argituko dituzte.

TVEKO KANALEK 6AN EGINEN DUTE ITZALALDIA, ETBKOEK 8AN ETA KATE PRIBATUEK 14AN

Olazti Natura taldearen jardunak ez du etenik

Gaueko hegazti harrapakariendako kafiak jarri eta bertako haritz landareekin ari dira

OLATZAGUTIA

Neguko oporretan makina bat jarduera antolatu zituen Olazti Naturak. Taldearen deialdiari erantzunez, 15 olaztiarrez osatutako taldea basora joan zen abenduaren 25ean. Haien egitekoa tokiko haritzaren ezkurak jasotzea izan zen. Ernamuinduta zeudenak tetrabrik ontzietan landatu zituzten. Eta ontzi horiek guztiak herriko eskolara eraman zituzten, ikasleek zain ditzaten. Helburua da landareak haztean landatzea. Bide batez, jarduera horrekin ikasleak ingurumen gaietan kontzientzia hartzen dute.

Hori ez da Olazti Naturak eskolarekin elkarlanean egin duen jarduera bakarra. Abenduaren 5ean ikasleek ertzetan zulo pila zituzten enbor zatiak margotu zituzten. Horiekin erle polinizatzaile bakartiendako hotelak egin zituzten Olazti Naturako kideak abenduaren 26an. Horiek jarrita, erle bakartiei bizitokia eskaini nahi diete, eta gaztigatu gero eta intsektu gutxiago daudela.

Hegaztiei dagokienez, urubi eta mozoloendako kafi kutxa bana jarri zituzten herrian, eta honzarendako beste bat Altsasan. Azkenik, hegazti txikiendako jaki energetikoa egiten ikasteko tailerra egin zuten. Hamarna helduk eta haurrek parte hartu zuten.

Lanak aurreratuta alokairurako etxeetan

Agorrila aurretik eginak izanen dira. Bitartean haiek alokatzeko araudia prestatzen ari da kontzejua. Haien azpian dagoen gizarte zentroa zertara bideratu aztertzen ari da. Bestetik, argindarra sortzeko hainbat eguzki plaka jarri dituzte

DORRAO

Galtzak bete lan dabilta Dorraoko Kontzejuan. Alde batetik, Meistruban etxea zena zaharberritzeko lanengatik. Hura goitik behera zaharberritzeko lanak aurrera doaz. Horretan Etxeberrikoa Lantegi SL enpresa ari da eta lanen truke 565.300 euro (BEZ barne) jasoko ditu. Dorraoko Kontzejuko presidente Jon Razkin Razkinek jakinarazi duenez, "lanak despeditzeko epe muga agorrila da, baina aurretik bukatuko dute. Gu momentu honetan etxebizitzak nola jantzi erabakitzen ari gara".

Hiru etxebizitza horiek alokairurako izanen dira. "Horiek alokatzeko araudia egiteko dugu. Unanuko Kontzejuaren eredu dugu. Horri jarraituko diogu ziurrenik, baina oraindik ez dakigu zerbait aldatuko dugun edo ez", azaldu du Razkinek. Nabarmendu duenez, "Dorraon biziko direnei alokatuko zaizkie etxebizitzak. Ez asteburu pasa etorriko direnei. Horrela herrian jende eta mugimendu gehiago egotea nahi dugu". Horregatik, eta Unanuko ereduari jarraituz, hainbat baldintza eskatzea aztertzen ari dira. Esate baterako, mahai gainean dituzten baldintzetako batzuk dira: alokairu eskatzaileei herrian erroldatuta



Kontzejuaren etxea eraberritzeko lanak aurrera doaz. ARTXIBOA

egotea, edo erroldatu baten seme-alaba izatea.

Eraikinaren beheko partean gizarte zentroa eraiki du kontzejua. Horrek 37,19 metro karratuko azalera du. Eta, gainera, komuna eta beste gela txiki bat ditu. Beste gizarte zentro bat du Itur-aldea elkartearen azpian. Berria zertara bideratu pentsatzen ari dira kontzejuan. Izan liteke denda, gizarte zentroa edo egoki jotzen den beste erabilerraren bat. Erabakia hartzen den bitartean espazio berriak dagoeneko jardueraren bat hartu

duela jakinarazi du kontzejuburuak.

Aurrekontua

Dorraoko Kontzejuaren aurten aurrekontuak 472.100 euroko sarrerak, joan zen urtean baino 95.300 euro gutxiago, eta 304.010 gastuak izanen ditu, 245.620 euro gutxiago. Razkinek azaldu duenez, aurrekontuko jaitsierak egin beharreko inbertsioak txikiagoak direlako da. Hala ere, aurrekontuko 250.000 euro inbertsioetarako dira. Etxebizitzek eta gizarte zentroak eramanen

dute zatirik handiena. Udalak izanen duen diru sarreretako bat Ergoienako Udalaren Herri Berritze Planekoa izanen da. Diru hori hiru etxebizitzak janztera bideratzea pentsatzen ari da Dorraoko Kontzejua. Bestalde, kontzejuaren egitekoen artean dago frontoiko argiterian LED argiak jartzea.

Elektrizitatearen autokontsumoan aurrera egiteko inbertsio handia egin berri du Dorraoko Kontzejua: eguzki plakak jarri ditu frontoiko eta kontzeju etxe-ko teilatuetan eta elkartearen teilatu zati batean. Horiek sortuko duten argindarra argiteria publikoan, kontzeju etxean eta mediku kontsultategian erabiliko da. Eta elkartean ere pixka bat. Gainerako elektrizitatea saldu egingen du, eta horrela kontzejuak diru sarrera bat lortuko du. Razkinek azaldu duenez, "plakak eta azpiegitura guztia jarrita daude, Iberdrolak sarera lotzea besterik ez da falta".

Lan horiek Tkin Orma SM enpresak egin ditu 186.692,44 euroko (BEZ barne) aurrekontua izan du. Europar Batasunaren Next Generationen Dus 5000 programaren bidez finantzatu da lana, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Berrereskuratzeko eta Erresilientzia Mekanismoaren markoan. Kontzejuaren izenean tramiteak egin dituen Ergoienako Udalak 141.122,30 euroko dirulaguntza jasoko du. Dagoeneko 112.0000 euro iritsi dira.

Hainbeste inbertsiorekin kontzejuaren diru sarreraren bati ongi etorria egingen liokete. Horregatik, baso aprobetxamendua saldu nahiko luke. Horretarako, Nafarroako Gobernuari eskaera egin dio kontzejuak eta erantzunaren zain dago.



ZUREA, GUREA, DENONAI



BILERA INFORMATIBOAK

ARBIZU: otsailak 5, 17:00, ikastolan.

ETXARRI: otsailak 7, 17:00, ikastolan.

LAKUNTZA: otsailak 8, 17:00, udaletxean.

ATE IREKIAK

ARBIZU: martxoak 5, 09:30.

ETXARRI: martxoak 7, 09:30.

HITZORDU PERTSONALIZATUAK HARTZEKO AUKERA

948 460 286 - etxarri@ikastola.eus





Julian Etxabari, Joxe Mari Ustarroz, Inozenzio Aierbe eta Felix Etxabari; urdindarrak eta ubertearrak. UTZITAKOA

Erreskatea Aralar elurtuan

Duela 68 urte Aralar guztiz zurituta zegoen. Gaurko egunez, Aralarko santutegiko kaperau Inozenzio Aierbe Irañeta eta Joxe Zufiaurre basozaina buru zuen talde batek bi uztegiar elurretatik erreskatatu zituen

UHARTE ARAKIL

Elurrik gabe, euri gutxirekin eta garairako temperatura oso suabeekin joan zen 1956ko ilbeltza. Baina 28an txirimiria hasi zen. Temperatura ona bazegoen ere, ekaitza etortzear zela sumatzen zen. Hala gogoratzen du Joxe Mari Ustarroz Razkinek garai hura. Mendiaren bestaldean, Uztegin, Migel Otamendi abeltzainak eta Pedro Gainza (20 urte) bere morroiak azienda biltzera mendira igotzea erabaki zuten. Haien mendira igotzearekin batera, temperaturek behera egin zuten eta elurrak harapatu zituen. Desako aterpe ondoan zuten txabolan aterpe hartu zuten. Haien ustea zen elurtea pasa eta etxera jaisteko aukera izanen zutela. Baina elurra mara-mara egiten segitu zuen, eta ez ziren ausartzen Aralar zeharkatu eta Malloak

aldera jotzera. Txabolan zeudela atea maiz zabaldu behar izan zuten Otamendik eta Gainzak, bestela elurrak trabatu eta ezin zabalduz galditzen zen.

Uztegin etxeokak kezkatu egin ziren elurte betean bi gizonetakoak bueltatu ez zirelako. Haien berririk ez zuten, etxeokak Aralarko santutegira hots egin zuten. Otsailaren 2ko goiza zen. Bi uztegiarren egoeraren berri eman zuten. Haien alde zerbait egin edo Guardetxeko basozainaren bidez beraien berri jasotzeko eskatu zuten. 1956an guardetxea eta santutegia tele-

"AIERBEREN DETERMINAZIOA: 'GU ATERAKO GARA', ERRESKATEA EGITEKO GAKOA IZAN ZEN"

fono linea pribatu baten bidez komunikatuta zeuden. Horregatik, Inozenzio Aierbe Irañeta kaperauak Jose Zufiarre basozainari hots egin zion, gertatutakoaren berri emateko. Zufiaurrek uztegiarrak ezagutzen zituen, eta bazekien non zuten txabola, Desako aterpearen ondoan. Aierbek jakinarazi zion berak zerbitzari ziren bi eliz mutilekin bi gizonak erreskatatu zitzakeela. Halakoetara ohituta zeuden, batez ere neguan, santutegitik ateratzean edo harako bidean galdutako makina bat erreskatatuta baitzizuten ordurako.

Erabakia

Otsailaren bigarren hartan ekaitza bere aurpegi gordinena erakusten ari zen, temperatura asko jaitsi zen. Zufiaurre mendian jaiotakoa zen eta 50 urte zituen.

Aierberi esan zion bizi guztian ez zuela halako denboralerik ezagutu. Ez zen ateratzera ausartzen. Aierbek temati jarraitzen zuen. Basozainak eskatu zion Baraibarko alkateari hots egiteko eta gizon talde bat bidaldezala eskatzeko: "han elurretan nahikoa esperientzia duen eta eskiatzen dakiten abeltzain taldea dago". Hala egin zuten Aierbek eta Baraibarko alkateak bilaketan edo erreskatean laguntzeko bost gizonetako sendo bidaliko zituela jakinarazi zion.

Aierbek Zufiaurreri Baraibarko alkatearen erabakiaren berri ematearekin batera jakinarazi zion: "gu atera egingen gara". 44 urte zituen kaperauarekin batera espedizioa Felix Etxabari urdindarrak (22 urte) eta Ustarrozek (16 urte) osatzen zuten. Kaperaua halako erabakitasunez ikusita, Zufiaurrek bat egin zuen. Baina gaztigatu zuten: "ez dugu egunean bertan bueltatzeko betarik izanzen, Desako aterpean lo egin beharko dugu", jakinarazi zuten basozainak. Lanbideagatik eraikin hartako giltza zuten. Bilaketa taldeko kideak afaltzeko jatekoak, galdutakoak pizteko Veterano koñakaz betetako petaka hartu zuten, eta sua pizteko gasolina pote bat. Santutegitik abiatu ziren eta guardetxean Zufiaurre batu zen seziziora.

Bilaketa

Ustarrozek gogoan du egun osoan mara-mara egin zuela elurra eta temperatura zeropetik 10 eta 12 artean mantendu zen. Ondorioz elur hautsa zegoen. Elurran bidea egiteko laukotea txandakatu egiten zen. Elurretan arraila egiten zuenak ez zituen eskiak ikusten, bigarrenak erdizka ikusten zituen eta hirugarrena lasai ibil zitekeen. Ustarrozek adierazi duenez, "dena elurtuta bazegoen ere, zuhaitzen formagatik Zufiaurre orientatzeko gai zen".

15:00ak aldera bi pertsonenak izan zitezkeen arrastoak opatu zituzten. Toki berean hiru buelta eman eta galduta sentitu ondoren Igaratza-Desao aldera

LAINO, ELUR EDO GAUAGATIK, MAIZ ATERATZEN ZIREN GALDUTAKOAK BILATZERA

buelta egitea erabaki zutela zurrudien. Haien zabalduak arrailan aurrera azkar egin zuten eskiatzaileek eta bi km-tara txabolarantz zihoazen Zufiaurrek eta Ustarrozek bi pertsona ikusi zituzten. Basozaina gehiago hurbildu eta "eeup" batekin agurtu zituen. Atzean zihoan uztegiar zaharrenak buelta eman eta erantzun zuten: "hemen ez duzue behorrik opatuko". eta Joxek erantzun: "ez gabiltza behor bila, zuen bila baizik". Ustarrozek esan duenez, "gizon hark kolore arraroa zuen. Iru-dipena dut gizon hura ez zela jabetzen zein zen egoera ezta non zegoen ere".

Denok elkartu eta bi uztegiarrei koñaka eman zieten. "Tarte on baterako arindu ederra izan zuten", gogoratu du Ustarrozek. Elurretan segitzen zuten oraindik ere. Bueltarako bidean Zufiaurrek eta Aierbek elurretan arraila zabaldu zuten. Gizon nagusia Etxabarriren eskien gainean jarri zen eta gazteena Ustarrozetan. Hala egin zuten seikoteak bidea guardetxeraino. Pixka bat lehenxeago iritsi zen Baraibarko boskotea, 17:00etan. Haien ere berretsi zuten basozainaren esana: sekula ez zuten halako denboralerik ezagutu.

Aierbek, Etxabari eta Ustarrozek santutegirako bidea hartu zuten, baina bide erdian, Moskordiko aldapan, ahituta guardetxera bueltatzea erabaki zuten, nahiz eta bidea egokia hartzen ari ziren ziurtasun handirik ez izan. Iritsi ziren. Ordu erdira iritsi ziren Baraibarkoak, haien ere bueltan. Han afaldu eta lo egin zuten guztiek. Gela berean lo egin zuten Gainza gazteak, Etxabari eta Ustarroz. Afarian mutu egondako Gainzak bikoteari esan zion: "Hue poza zuek ikustean!" Jabetu zen haien bila zihoazela eta salbatuta zudela. Jakinarazi zenez, bueltatzea erabaki zuten beste aukerarik ez zegoelako, baina bazekien ez zirela iritsiko. Goizean ate parean besaperainoko elur pilak hautsi zituztela azaldu zion, eta ziurrenik erreskaterik ez balitz izan orain beste elur pila bati aurre egiteko indarrik gabe leudekeela esan zion.

Ustarrozek eta konpainiak gerora jakinen zuten santutegiko termometroak zeropetik 25 gradu hartu zituela. Ganboiko askotan gordeak zeuden patatak izoztu eta galdu egin ziren.



Adavaneko presidente Jose Manuel Bueno Perez Parlamentuan hizketan. UTZITAKOIA

Kezka Adavanen, amiantoa kentzeko plana geldi baitago

Parlamentuari eta gobernuari konpromiso politikoa eta plana garatzeko dirua eskatu dizkie elkarteak

SAKANA

Nafarroako Amiantoaren Biktimen Laguntzarako eta Defentsarako Elkarteko, Adavaneko ordezkari Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordearekin bilera izan zuen ilbeltzaren 24an. Ordezkari osatzen zuten artean elkarteko presidente Jose Manuel Bueno Perez altsasuarra zegoen. Adavanekoek parlamentariari eskatu zieten amiantoa duten materialak erretiratzeko plana abian jartzeko. Horretarako konpromiso politikoa handiago eskatu zuten: "Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak "beren gain hartuko duten legea, biktimak eta gizarteak eskatzen duena betetzeko erantzukizuna". Aldi berean, parlamentariari galdetu zieten haiendako "lehenetsuneko den" 2019ko amiantoaren plana martxan jartzea eta garatzea, "amiantoa desagerrazteko eta etorkizunean eragiten dituen sufrimenduak eta heriotzak saihesteko".

Adavan elkarteko idazkari Juan Manuel Paniagua Martin altsasuarra azaldu duenez, "Parlamentuko talde guztiak aldeko jarrera dute. Hitz politikak entzun genituen, besterik ez. Ez da lehenetsuneko gaia. Amiantoa kentzeko plana ez dute martxan jartzen". Gaineratu duenez, "bileran esan ziguten Nafarroako Gobernuaren aurtengo aurrekontuetan planari zuzendutako diru partidarik ez zegoela".

Parlamentuko bilkuraren ondoren Adavanekoek jakin dute beharbada emendakin bidez

aurrekontuetan 100.000 euroko partida bat sartuko dela. "Trebakuntzara bideratuko litzatekeela esan digute", argitu du Paniagua. "Ez da nahikoa. Nafarroarako bakarrik 240 milioi euro aurreikusi zituzten", zehaztu du elkartekideak. Aurretik ere amiantoa kentzeko 30 pertsona trebatu ditu foru gobernuak.

Plana martxan jarri ez delako aurretik ere elkartu izan da Adavan parlamentariarekin. 2021eko martxoan plana martxan jartzea eskatu zien. 2022ko aurrekontuen eztabaidan, "hainbat harreman izan genituen Parlamentuko talde guztiarekin berriro martxan jartzea eskatzeko, beste gai batzuek aparte", eta partida bat adostu zen 12 ikastetxetako amiantoa kentzeko, web-orri bat sortzeko, kudeatzeko departamentu arteko batzorde bat eratzeke eta amiantoa identifikatzeko gaitzuntza ikastaro batzuk egiteko. Baina departamentuen arteko batzordea baino ez zen sortu, eta, gainera, "finantzaketarik gabe eta, beraz, garapenik gabe".

Kezka du 2030erako amiantoa guztia erretiratzeko gobernuak "berandu" dabilelako. "Amiantoa ezabatzeke plana onartu zenean aitzindaria zen Nafarroa, baina dagoeneko beste erkidego batzuk aurreratu gaituzte". Amiantoarekin lan eginen duten egoerak ere kezkatzen du Paniagua: "azterketak egiteko lau mediku daude. 2-3 urteroko egin beharreko azterketak 4-5 urteroko eginen ari dira. Atzerapen handia dago. Gaitza garatuz gero, azkar doa".

Plaza irisgarriago bihurtzeko lanak hasita

Plazaren erdigune guztia altura berean geldituko da, baita liburutegi eta udaletxe inguruak ere. Lanak apirilera despidituta egotea espero du udalak. Bestetik, Aldapasoroko herriko sarrerako zorua berritu du

ETXARRI ARANATZ

Herri erdigunean oinezkoien lehenetsuna emateko lanen aurreneko fasea egin ondoren, orain plaza erabat irisgarri bihurtzeko lanen txanda da. Lan horiek joan zen astean hasi ziren. Etxarri Aranzko Udalaren aurreikuspenaren arabera lanak apirilaren hasierarako despidituta egonen dira. Obra XEGO17 SM enpresa egiten ari da, eta 91.091,95 euro (BEZ Barne) jasoko ditu. Egitekoak honakoak dira: plazako zuhaitzen artean dauden kale zatiak plazaren altura berean jartzea. Hala egingen dute haur parkearen eta pareko zuhaitzaren artean, eta Maiza eta Lazkoz kaleen pareko plazako tartean. Gainera, liburutegiaren eta liburu dendaren arteko espazioko zorua altura berean eta, azkenik, porlanezko zehrabide bat egingen dute udaletxearen ondoan, Mundiño kalean, aldameneko zelai-gunearekin parean gelditzeko udaletxeke espaloia. Bestalde,



Jolas parkearen aldamenean hasi dira lanak.

astehenean lanera bueltatu ziren langileak enpresako ibilgailu bat kaltetuta opatu zutela jakinarazi zioten udalari.

Bestetik, Etxarri Aranzko Udalak Aldapasoro auzotik Zumurdiñeta industrialdera dara-

man bide zatia konpondu du. Herriko sarrera horretan zorua oso hondatuta zegoen eta, horregatik, udalak asfalto konpondu berri du. Aipatutako industrialdeko zorua berritzea ere udalaren egitasmoen artean dago.



SAKANAKO HERRI ESKOLAK

Hiru eskolari aitortza

Ikastetxean kalitate kudeaketa sistema diseinatu eta ezarri duten eskola publikoek aitortza jaso zuten ilbeltzaren 26an. Aitortza jaso zuten 33 ikastetxeen artean hiru sakandar zeuden. Lakuntzako herri eskolak Kalitatezko Zentroa aitortza jaso zuen. Etxarri Aranzko

San Donato eta Altsasuko Zelandi eskolek, berriz, beraien Kalitatezko Zentro aitortza berritu zuten. Gobernutik adierazi zuten, "bikaintasunak eta kalitateak gora egiten jarraitzen dute hezkuntza publikoan".

Nazioarteko garraiolarien ezohiko ibilerak

Ipar Euskal Herriko eta Frantziako nekazariak autopistak ixteak eragin zuzena izan du garraioko profesionalen jardunean. Itxiera horiek lehen sektoreak Europan bizi duen egoera zaila lehen lerrora ekarri du; abeltzain eta nekazarien artean kezka dago

Eneida C.M. Alfredo A.I. SAKANA

Lehen sektoreko langileen ekonomia egoera ez da ona Europan. Agroindustriak ekoizpena etengabe handitzea bermatzen du. Bestetik, merkatuak liberalizatu dira, lehen sektorea ere mundializatu da eta funtsek ere etekina ateratzeko modua opatu dute nekazaritzan eta abeltzaintzan. Horrek guztiak sustatutako logika ekonomikoak eragin du krisia, lehen sektorean: gero eta etxalde eta langile gutxiago izatea, eta daudenak baldintza zailetan aritzea. Horregatik nekazari eta abeltzainek haien ezinegona kalera atera dute Europan. Hego Euskal Herrian otsailaren 6rako, astearterako, protesta prestatzen ari dira.

Ipar Euskal Herrian eta Frantziako autopistak itxi dituzte. Salatu dutenez, gobernuaren laguntzak gero eta eskasagoak dira eta gero eta beranduago ematen ditu. Horregatik aldarrikatu dute ekoizpen kostua baino



Lehen sektoreko langileak autopista mozten. @EUSKALIRRATIAK

txikiagoak diren salmenta prezioekin bukatzea. Hau da, lehen sektoreko ekoizleendako prezio duinak eskatzen ari dira.

Europako lehen sektoreko ekoizleak kezu dira Europar Batasunera (EB) kanpotik sartzen

diren produktuak ez dituztelako haiek betetzera behartuta dauden ekoizpen baldintza berak. Horregatik, merkataritza akordioetan baldintza horiek ezartzea eskatu dute. Bestetik, EBk klima krisiari aurre egiteko eta ingu-

rumena babesteko gero eta baldintza gogorragoak bete behar dituztela, eta horrek asko zailtzen diela lana. Eta kezu dira laborariak.

Errepidean

Ventura Mundiñano Ruiz garraiolaria etxarriarra Frantziara burdina eramaten eta egurra ekartzen aritzen da. Astean bitan egiten du joan-etorria. Joan zen astean etxerako bueltan, "Baiona parean autopista itxita, ez zitzaidan egoera oso txarra tokatu, eta nahiko ongi iritsi nintzen. Aste honetan, astelehenean, kamioia deskargatzeko puntura egun bat beranduago iritsi naiz. Gaizki, ordu pila bat galduta".

Bidean "sekulako ilarak, errepide mozketak, su hartutako belarra" eta beste ikusi ditu garraiolaria etxarriarrak kamioiko kabinatik. Asteartean Orleans aldera joaten zela, jendarmek autopista bateko irteera batetik errepide nazionalera aterarazi zuten Mundiñano. "Hiru metroko zabalera neraman eta arriskurik zegoen eta errepidea ona zen galdetu nien. Ezetz, aurrera egiteko. Herri batera sartu eta bi ordu eta erdi gelditu ginen. Herria justu justu pasa nuen, hiru metroko zabalarekin eta autoak bi aldeetan. Herriatik ateratzear kamioi bati gasolio depositua lehertu eta ezin ia ibili ere egin. Azkenean atera ginen. Han bi ordu eta erdi galdu genituen. Azkenean, 16:00etan iritsi

nintzen". Merkantzia berandu emateagatik Mundiñanok ez du arazorik izan, burdina eta egurrarekin lan egiten duelako. Ez du jasotze eta emate ordutegirik. Baina hozkailuak diren kamioiekin ez da gauza bera gertatzen.

Halako protestak ezagutu izan ditu aurretik Mundiñanok, nekazariak edo txaleko horienak, esaterako. Etxarriarrak azaldu duenez, azaldu duenez, "protesten arrazoiaren berri Internet bidez jakiten dugu. Txaleko horiak egon zirenean informazio esku orriak eman zizkiguten, baina oraingo honetan ez". Horrelako egoeratan irratia eta beste garraiolaria batzuen informazioek erraztasunak ematen dituzte. Horregatik, nekazariak Baiona pareko itxiera kendu ondorengo autopista hartatik pasatzen hirugarrena izan zen etxarriarra.

Normalean Mundiñanok kamioian jatekoa eramaten du, "basoan lan asko egiten dugulako eta han ez dagoelako jatetxerik. Afaltzeko jatetxeren bat opatuz gero, kitto". Jakinik zer gerta zitekeen aste honetan etxarriarrak jan-edan gehiago sartu du kamioian, badaezpada.

"JENDARMEEK DESBIDERATU, HERRI BATERA SARTU ETA BI ORDU ETA ERDI GELDI EGON GINEN"

DUELA 25 URTE...



ADEk auto bat oparitu zuen

Altsasuko Dendari Elkartek egin zuen sustapenak Citroen Saxo auto bat zuen sari nagusia. Eliodoro Mendozak eta bere hamabi lagunek Tanco supermerkatuan erosketan egin zuten, eta zozketako hainbat zenbaki eskuratu zuten, tartean 41.844 zenbakia. Zozketa egin eta zenbaki hori sarritua izan zen. Mendozak elkarteko lehendakari Pedro Migel Lasaren eskutik jaso zuen autoko giltza. Sarrituek autoarekin zer egin erabakitzeak ziren, saltzea zen aukeretako bat.

Bigarren edizioa du 'Altsasu 1936' liburuak

Aurreneko edizioko 900 aleak agortu egin dira eta 500 gehiago argitaratu dituzte. Argazki funtsa sortuko da

ALTSASU

Altsasu Memoria taldeak *Altsasu 1936* (2023, Altaffaya) Amaia Urkijo Artolak eta Iosu Imaz Primek idatzitako liburua argitaratu zuen joan zen urtean. Historia memoriako liburu horretan Altsasun 1900 eta 1950 urteen artean gertatutakoa jaso dute, bereziki erreparatuz 1936ko estatu kolpearen ondoren herriak bizi izandako errepresio olatuari. Egileek liburua azaroaren 23an aurkeztu zuten eta harrera ona izan zuen. Hain ona bi hilabeteren buruan ale guztiak, 900,



Aurkezpenekoan liburua erosten.

agortu direla eta liburuaren bigarren edizioa kalean dela. Beste 500 ale argitaratu dituzte.

Erakunde altsasuarreko kideak Nafarroako Memoria Institutuarekin harremana dute, eta Historia Memoriako zuzendari Josemi Gaston Aguas liburuaren aurkezpenean izan zen. Liburua egiteko Urkijok eta Imazek makina bat argazki erabili zituzten. Orain Altsasu Memoriak institutuarekin akordioa itxi du eta "Altsasu memoria" argazki funtsa sortuko du. "Liburuan daudenak eta kanpo gelditu ziren argazkiak egon dira funtsean. Institutukoekin batera zein argazki egon behar duten funtsean eta zein ez aukeratu beharko dugu. Bide batez, argazkiak betirako esku onetan gordeak geldituko dira", azaldu du Imazek. Dagoeneko lanean daude.

KINTOAK

"Dagoeneko batzuk urduri gaude"

HEGOI LAKUNTZA ZELAIA ETA IKER LIZARRAGA ESKIROZ KINTOEN BURUZAGIAK
ALTSASU Altsasuko kintoek astelehenean hasiko duten ospakizunerako dena prest dutela jakinarazi dute

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Kanpoan ikasten ari diren beste hainbat kinto bezala, hitzordura ezin izan dute agertu beste bi buruzagiak: Lexuri Urteaga Carreño eta Naroa Bereziartu Aiestaran. Burunda frontoian egin dugu hitzordua, dantza entseguaren aurretik. Giroan urduritasuna eta ilusioa nabari dira. Buruzagiek jakinarazi dutenez, guztia prest dute dagoeneko.

Buruzagi izateagatik adarjotze asko jaso dituzue?

Iker. Bai. Azkenean, onartzen duzu. Tokatzen dena da, norbaiti egokitu behar zitzaion.

Hegoi. Ez da amesten den kargu bat, kia. Karta bat hartu eta tokatu bazaizu, tokatu zaizu. Kargua onartu eta Santa Agedarako gauzak prestatzen hastea da kontua.

Errege egunetik gaur artekoak zer moduz?

I. Batez ere bazkariak, afariak non egin, parranda non egin lotzea. Ondoren hainbat gauza txiki ere: zakutoak hartu, astoa, udaletxera hots egitea... Txiki-keriak, baina egin beharrekoak.

H. Zerrenda luzea da. Lehendabiziko hastetik hasi ginen guztia prestatzen.

I. Eginbeharreko ia guztia bukatuta dugu. Egunerokotasunean sortzen direnak, baina dena prest dago.

Zer moduz dantza entseguetan?
H. Ongi. Ia kinto guztiak entseatzeko aritu gara egunero, asteburuak izan ezik. Entseguetan ongi ikusten dugu gure burua, dantza onak egiten.
Kanpoan ikasten dutenek entseguetara etortzeko aukera izan dute?
H. Batzuek bai, besteek ez dute lortu. Esaterako, Ikerrek Zaragozan ikasten du. Ezin izan da egun batzuetan etorri, baina



Hegoi Lakuntza Zelaia eta Iker Lizarraga Eskiroz, kintoen buruzagiak.

saiatu da entsegu guztietara etortzen.

Zaragozan bideoak ikusten entseatzeko imajinatu behar zaitugu?

I. Zortea izan dut, hemen egun askotan egon naiz. Dantza nolako den, hona etortzea... Kanpoan egonda gehiago entseatzeko beharrezkoa da.

Zer esaten dizute dantza irakasleek?

H. Ongi ikusten gaituzte. Hasieran esan ziguten pixka bat hantzen.

"HASIERAN ESAN ZIGUTEN DANTZAN PIXKA BAT HANKA MOTZAK GINELA"

"OSTIRALETAN FRONTOIAK PLAZA DIRUDI, DENA BETETA EGOTEN DA"

ka motzak ginela. Astero ikusten dute prozesua, nola hobetzen dugun. Esan digute, gutxi gorabehera ongi dakigula. Orain gauzak borobiltzera!

Ikusle pila etortzen dira zuen entseguak ikustera.

I. Ostiraletan frontoia plaza dirudi, dena beteta egoten da. **Jantziak, makila, azpila... horiek ere prest?**

I. Bai. Dena prest. Argazkiak ateratzen egon ginen eta guztiok dena genuen.

Senideren batek aurretik erabilitako zerbait eramanen duzue?

I. Horrelakorik ez dut. Nire kasuan familiako lehena naiz, beraz, dena berria eta dena egiteko nuen. **H.** Osabaren makilatik zapiren bat hartu dut. Dirua eskatzeko azpila ere osabarena. Beste guztia nik bakarrik egin dut. Argazkiak eta guztia eginda dut.

Santa Ageda bezperan hasten zarete, ezta?

I. Meza egoten da eta kintoak joaten dira. Ondoren herrian barnako kalejira egiten dugu, bosterako prestatzeko.

Astelehena, egun handia.

H. Dagoeneko batzuk urduri gaude. Ni, behintzat, bai. Baina, tira, hor bertan dago.

Zein da Santa Ageda egunerako duzuen plana?

H. Lehendabiziko egunean, goizetik lasai hartu, zeren bestela gero eguna luze egiten da. Dantza garaian ongi eta lasai egotea. Gero ateratzen dena aterako da. **Zein ordutan gelditu zarete astelehen goizean?**

I. Oraindik ez dugu ofizialki lotu, baina 06:00ak aldera hasi behar ko gara, dirua hartzeko.

H. Gero gosaldia eta 09:00etan udaletxe parean agertu eta agintea makila hartu.

Herrian barna hasiko zarete ondoren.

I. Bai. Kintoak eskean eta buruzagiok astoarekin, opilak banatzen. Desberdina, baina polita ere. Aurten kinto bakoitzak bere opila egin du, diru gehiago ateratzeko. Hainbeste ez garen, hori egokia zela iruditu zaigu.

H. Bazkaltzeko ordua berandutuko zaigu. Opilak banatu ondoren, 16:00ak aldera joanen gara. Zeren, bestela, plazan dantzatzen hastea berandutu egingen da.

Santa Ageda egunean beste kinta batzuek dantzatzen dute, ezta?

I. Bai. 25. urteurrena egiten duten kintoek eta 60 urte bete dituztenek gurekin batera dantza-

tzen dira. Gutako batzuek lehenik, ondoren beraiek.

Zer iruditzen zaizue 1983ko kintoek aurten emakumezko buruzagiak aukeratzea?

H. Ongi. Azkenean, guri pixka bat berdina zaigu nola egiten duten haiek.

I. Denak aurrera egin behar du, eboluzioa naturala da. Beraz, dena aurrera.

Laguntzaileak zein dira?

I. Andoitz eta Haizea. Hasieratik gurekin entseatzeko egon dira. Kintoko parte dira.

Aurreko larunbatetako kafeak, gaueko kinto topaketak, zer moduz?

H. Guztion artean oso ongi moldatzen garen, oso gustura egon gara kafe horiek hartzen.

I. Larunbatean azkena dugu, ongi bukatzeko eta bosterako dena prest uzteko.

Gauean elkartuko zareten tabernak zein dira?

H. Astelehenean Xume, asteartean Lezea, ostegunean Koxka eta ostiraletan Haritza. Larunbatean denak irekita egoten dira.

Asteazkena saltatu du?

I. Bai, beharrezkoa atsedena hartzeko, eta ostegunean eguna hobe hartzeko.

Altsasuarrindako, eta ez direnendako, mezuren bat?

H. Guztiak batera plazan egoteko, kinto oso onak izanzen baitira. Eta kintoak pila bat animatzeko.

Egun on Sakana

Goizero 10:00 | Errepikapena 14:00



igo bolumena +

beleixe 107.3 FM

KINTOAK



OLATZAGUTIA Olatzagutiko kintoak atzo hasi zuten ospakizuna, eta astelehenera arte herrian zehar ibiliko dira kaleak alaituz.

OLATZAGUTIA**OTSAILAK 2 Ostirala**

19:30 La Cigarra txarangaren doinura zortzikoa dantzatuko dute plazan.

23:00 Bisaiak eta Zazu taldeek kontzertuak eskainiko dituzte, gaztetxean.

23:00 Oihan Vegak disko festa egingen du Barandi tabernan.

OTSAILAK 3 Larunbata

Egunean zehar herriko kinto guztiak ospakizunera batuko dira. 23:00 Bidean erromeria taldeak eskainiko duen dantzaldia izanen da, gaztetxean.

OTSAILAK 4 Igandea

Egunean zehar herriko kinto guztiak ospakizunera batuko dira.

OTSAILAK 5 Astelehena

Egunean zehar herriko kinto guztiak ospakizunera batuko dira.

UHARTE ARAKIL**OTSAILAK 8 Osteguna**

15:00 Kinto bazkaria.
18:00 Kinto eskea Amurgingo baserrietan. Handik Itxesia auzoko goiko partera joanen dira.
21:30 Kinto afaria.

Parranda udalak utzitako eraikinean. Han bertan lo egingen dute kinto ospakizunen egunetan.

OTSAILAK 9 Ostirala

10:00 Gosaldu.

10:30 Enpresetan kinto eskea egin. Ondoren, Zerradoa auzoan. Eskolara bisita.

15:00 Kinto bazkaria.

18:00 Kinto eskea Itxesia auzoko beheko partean.

21:30 Kinto afaria, eta parranda.

OTSAILAK 19 Larunbata

09:30 Gosaldu.

10:00 Kinto eskea herrian.

12:30 Ihote giroarekin bat egingen dute.

15:00 Kinto bazkaria.

18:00 Kintoak ihote kalejiran parte hartuko dute.

22:00 Afaria kinto zahar eta gazteekin batera. Ondoren, parranda.

UHARTE ARAKIL**Kintotarako atzera kontua**

Otsailaren 8tik 10era, ostegunetik larunbatera kinto ospakizunak izanen dira Uharthe Arakilen. Sei gaztek osatzen dute aurtengo kintada: June Astitz Mendoza, Maria Razkin Beraza, Irati Albeniz Garro, Eider Claver Zubietta, Ion Lizarraga Beraza eta Unai Ollo Montosa. Guztiak ere kinto ospakizunetan koloretako ileordeekin eta etxeko arropa zaharrenekin jantzita ibiliko dira herrian barna. Haien dauden tokiaren berri emanen dute lagun izanen dituzten akordeoilariak eta trikitilariak. Kinto eskean ospakizuna finantzatzeko dirua jasoko dute, baina zenbait etxetan gazteei jan-edanak ere eskaintzen dizkiete.



83ko kintako emakumezkoak plazara

ALTSASU Estreinakoz, Santa Ageda egunean, 60 urte bete dituen kintadako zortziko dantzariak emakumezkoak izanen dira. Horretarako aurtengo kintoekin batera dantza entseatzen ari dira. 1983an kinto izandakoek emakumezko buruzagiak dituzte ere

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Aurten 60 urte bete dituztenek kinto ospakizuna izanen dute Santa Ageda egunean. Estreinakoz adin horretako kintada batek emakumezko buruzagiak aukeratu ditu: Itziar Perez de Villarreal Uribe eta Josune Mazkieran Irigoien. Aurrena kanpoan bizi denez, ezin du zortzikoaren dantza entseguetan egon bai, ordea, Mazkieran. Eta, berearekin batera, kintadako ospakizun batzordeko kide diren Nani Iriarte, Maribel Fernandez, Kasilda Lopez de Muniain eta Erkuden Imaz ere entseguetara joaten dira.

Azaldutenez, "kinto emakumezko bati duela urte batzuk bururatu zitzaion emakumezko buruzagiak ere aukeratu behariko genituzkeela, bere garaian ez genuelako egin. Aurten 60 urte betetzen ditugula eta ospakizuna antolatzen hasi ginenean, hala egitea erabaki genuen: emakumezko buruzagiak aukeratzea". Gaineratu duenez, "urteurrena hurbildu ahala, kinto bazkarietan planak egiten hasiak ginen: buruzagiak aukeratu, emakumezkoak dantzatuko gara... Pixkanaka ondu dugu, eta aurrera doa".

Ospakizun batzordean erabaki zuten emakumezko buruzagiak aukeratzea, errege egunean, "kinto zozketa bera eginenez, baina aurtengo kintoei protagonismoa kendu gabe". Hau da, aurtengo kinto buruzagiak aukeratu baino ordu erdi lehenago alkateak banatutako karten bidez aukeratu

zituzten buruzagiak. Mazkieranek esan duenez, "aukeratua izan nintzenez txantxa ugari egin zituzten. Baina ilusioa egiten dit. Eta abantailaren bat ere badugu, esate baterako: gainontzeko kinto guztiei zapiak jartzea. Gainera, zortziko dantzatuko dugu". Astelehenean zortziko dantzatuko dute Iriartek, Lopez de Muniainek, Mazkieran eta Perez de Villarreallek. Imaz eta Fernandez dantzara mutilak ateratzeaz arduratuko dira.

Ziurtatu dutenez, "1983an pentsaezina zen emakumezko buruzagiak aukeratzea. Gauza handia zen egunen batean katera eta behin afaltzera gonbidatzea. Buruzagiak aukeratzearena denborarekin eta bilakarearekin sortu da". Esan dutenez gizonezkoek ez diete inolako trabarik jarri: "uste dugu haiek ere garai hartan egon zen harrisia hausteko gozogoz zeudela; guztian lagundu digute".

Bidea zabaldu dute, baina ez dakite 1984 emakumezko kintoei bidea egiten jarraituko duten, "ez dugu inorekin hitz egin" zehaztu dute, "baina espero dezagun pausotxo horiek ematen segitzea; bilakatzen segi dezala, eta bere garaian parte hartu genuena baino gehiago parte hartzen".

Santa Ageda

Otsailaren 5a aurten astelehena da. Eguerdian Foru plazan jarri dute hitzordua. Txistulariak lagun dituztela, hilerrira joanen dira, hildako kintoei lore eskain-



Nani Iriarte, Josune Mazkiaran, Maribel Fernandez, Kasilda Lopez de Muniain eta Erkuden Imaz.

tza egitera. Ondoren taberna batean auzate txiki bat izanen dute zain. Emakumezko buruzagiek aukera hori baliatuko dute kinto guztiei ospakizuneko zapia jartzeko. Ohi bezala, udalaxe pareko eskaileretan talde argazkia egingen dute. Elkarte batean bazkalduko dute. 67 izanen dira mahaiaren bueltan eseriko

direnak. Bik oraindik zehaztu gabe dute asistentzia. Kintadak askoz ere kide gehiago ditu. Pena bakarra dute, "Santa Ageda astelehena da, jende askok lan egiten du eta bi egun jai hartu behar ditu. Zaila da, ulertu beharra dago".

Musikak jasoko ditu mahaitik. Baina ezin izanen dute elkarte-

ko egonaldia gehiegi luzatu, Foru plazara bueltatu eta, zortziko dantzatu beharko baitute. Behar bezala dantzatzeko boskotea ilbeltzaren 8az geroztik entseatzan ari da. "Baina astelehen eta asteazkenetan joaten gara, harmailetan jende gutxien dagoen egunetan. Ahal duguna egiten dugu".

SANTA AGEDA BEZPERA

IRURTZUN

OTSAILAK 4 Igandea

18:00 Santa Ageda Korua, Aizpeak antolatuta, Foru plazan.

IRAÑETA

OTSAILAK 4 Igandea

18:00 Santa Ageda koplak abestera aterako dira.

LAKUNTZA

OTSAILAK 4 Igandea

17:00 Lakuntzako haurrak plazan bilduko dira, makilekin eta baserritarrez jantzita, plazan. Musika tresnaren bat jotzen dutenek parte hartzeko eskatu dute. Lakuntzako gurasoek antolatuta.

19:00 Lakuntzako Abesbatza Santa Ageda koplak abestera aterako da, eta haur, gazte eta heldu haiekin ateratzen gonbidatu dituzte, plazatik.

Ondoren, kultur etxean merendua.

LIZARRAGABENGOA

OTSAILAK 4 Igandea

19:30 Santa Ageda koplak kantatzera aterako dira, plazatik.

ETXARRI ARANATZ

OTSAILAK 4 Igandea

18:00 Musika eskolako eta Bertso Eskolako ikasleek Santa Ageda kalejira egingen dute, musika eskolatik abiatuta. Ondoren, txokolate jana, plazan.



ARTXIBOA

ALTSASU

OTSAILAK 2 Ostirala

13:00 Iñigo Aritza ikastolako ikasleek Santa Ageda koplak kantatuko dituzte, Foru plazan.

OTSAILAK 4 Igandea

12:30 Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako fanfarreak eta koruak Santa Ageda kalejira egingen dute, musika eta dantza eskolatik.

12:30 Kukurrekka elkarteko kantu taldeak Santa Ageda koplak kantatuko ditu, Kukurrekka elkartetik.

19:00 Lagun Onak elkartekoak Santa Ageda koplak kantatuko dituzte, Lagun Onak elkartetik.



ARTXIBOA

0 km
SAKANAKO
GIDA

BEHERAPENETAN ARROPA DENDA BATEN BILA?

<https://guaixe.eus/gida/>

IHOTEAK

IHABAR

OTSAILAK 3 Larunbata

11:00 Puskabiltza.
18:00 Etxez etxeko erronda.
22:00 Pikoteoa eta dantzaldia.

OTSAILAK 4 Igandea

18:00 Inauteriaren antzezpena eta txistorra jana.

IRAÑETA

OTSAILAK 3 Larunbata

10:00etan Hamarretakoa, Txapel Azpi elkarte.
12:00 Herriari buelta, ezkongabeiei ezel paxoak jartzeko.
14:00 Umeen bazkaria.
14:30 Helduen bazkaria.
18:00 Herriari buelta. Ondoren Antxon Zarkua erreko dute.

ALTSASU

OTSAILAK 3 Larunbata

18:00 Altsasuko inauteriak ezagutzeko erakustaldia eginen du Inauteri Batzordeak, Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuarekin elkarlanean, Gazte agendaren barruan. Ondoren, txokolate jana izanen da, Intxostiapunta gazte gunean.



ARTXIBOA

Ihabar, ihoteei emanda

IHABAR Asteburuan izanen dira neguko ospakizunak

Ihebardarrek bi egunez ospatuko dituzte inauteriak. Larunbatean estreinakoz aterako dira moxorroak kalera. Jantzi txuriak eta koloretako zintez apaindutako txanoa jantzita dutela ibiliko dira egunean zehar. Moxorroek esku batean erratza izanen dute, harekin jendea lokatzaz edo suko hautsez zikintzeko prest egonen dira. Giro ederra izanen da herrian ordu txikiak arte. Igandean herriko ihote segizio osoa ikusteko

OTSAILAK 7 Asteazkena

17:30 Altsasuko herri inauteriei buruzko erakusketaren mustutzea, Inauterietako Batzordeak, Zelandi, Corazonistak eta Iñigo Aritza ikastetxeetan egindako lanen eta Javi Galeanoren lanen erakusketa, lortia kultur gunearen plazan.

ZIORDIA

OTSAILAK 3 Larunbata

15:00 Herri bazkaria, elkarte.
18:30 Zangitu fanfarreak alaitutako kalejira, gimnasiotik abiatuta. Geldialdiak Goenkalden eta ermita inguruan jota eta porrusalda dantzatzeko.
20:00 Zortzikoa eta panpinaren erretzea, plazan.
20:30 Merienda (gazta eta txorizoa), plazan.

OLATZAGUTIA

OTSAILAK 9 Ostirala.

MARI ARROKA

19:30 Mari Arrokarri ongi etorria San Sebastian ermitan. San Migel plazaraino joanen dira. Herreraren ondoren pintxo potea gaztetxean. Maisuenea gaztetxeak antolatuta.

aukera izanen da. Izan ere, moxorroez aparte, hartza, Aitezarko eta Landarra aterako dira. Azken horrek besotan Ninia (zapi batean bildutako egur puska) izanen du. Txistularien doinu lagunduta, herrian barnako kalejiran ibiliko dira. Ibilbidean zehar familiaren pasadizoa berrituko dute: Landarra oihuka eta negar batean erre-guka ariko da Aitezarko zigortu ez dezaten. Baina ohi bezala, sutara zigortuko dute Aitezarko.



ARTXIBOA

ALTSASU Altsasuko herri inauteriei buruzko erakusketa otsailaren 7tik 16ra izanen da ikusgai lortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

Ihotea ate joka

IRAÑETA Otsailaren 3an, larunbatarekin, inauteriak ospatuko dituzte irintarrek

Segizio koloretsu bat Irañetaz jabetuko da ihoteetan. Irintar mozorrotuak txuriz jantzen dira, bizkarraldean koloretako zintak dituzte, mugitzean airean dantza egiten dutenak. Gainera, gerriko gorria eta burua estaltzeko koloretako zintak dituzten txanoa daramate. Goizean, ohi bezala, tripotxak gosalduko dituzte. Eguerdian ezel adartxo osatutako paxoak utziko dituzte ez-

kongabeen etxeetan. Eta urtean behin Irañetan agertzen den Atxun Zarkoan arratsaldean agertuko da. Bere azkena elkar-tearen parean ezagutuko da. Bazkarian hondarrak geldituz gero, horretarako girorik bada-go, bakarren batzuk elkarte afalduko dute. Aurten 25 urte beteko dira Artxabal euskara taldeak ihoteak berreskuratu zituela.



ARTXIBOA



ARTXIBOA

Zomorro, pezkin eta artzain artean

ZIORDIA Atzera ere Ziardiko ihoteetako hiru pertsonaiak herriko kaleetan izanen dira, otsailaren 3an

Mahaiaren bueltan bazkaltzera eserita, hala hasiko dira ihote ospakizunak Ziordian. Bazkaltzera esertzen direnerako, batzuek soinean izanen dituzte zomorro, pezkin edo artzain pertsonaien jantziak. Praka eta atorra txuriarekin, zatekin eta apainduta joaten dena zomorroa da. Kalean, aurpegia estali eginen du. Pezkinak mahoizko prakak eta zakua jantzen ditu eta zintaz apaindutako txanoa eramaten du. Pertz batean errautsa eramaten du. Azkenik, artzainak daude, garaiko artzain jantzi arruntez jantzita eta aurpegia zikina dutenak. Aldean danborra edo saski bat dute.

FUTBOLA
EMAKUME PREFERENTEA15. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Gares 3-3

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTE MAILA

1 Tudelano 36

9 Altsasu 6

HURRENGO JARDUNALDIA

OTSAILAK 4, IGANDEA

17:45 Altsasu - Idoia (Dantzaleku)

Altsasu, bigarren berdinketa jarraian

Garesen kontra garaipena eskura izan zuen Altsasuk, baina ezin. Etzi, Idoia arerio.

GIZON PREFERENTEA

18. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Altsasu - Universidad de Navarra 1-2

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Burlades B 36

12 Altsasu 25

HURRENGO JARDUNALDIA

OTSAILAK 3, LARUNBATA

16:00 Aurrera - Altsasu (Leitza)

Altsasuk Leitza jokatu du

Azken jardunaldian Altsasuk Universidad de Navarra hartu zuen Dantzalekun eta ezin izan zuen punturik bildu. Bihar Leitza jokatu du, sailkapenean azkena den Aurreraren kontra. Altsasuk garaipenaren xenda berreskuratu nahi du.

Zaldia vs Paris 365

Elomendiko Txapelketan, Zaldia 2-5 irabazi zion Unziriti. Larunbatean, Larrabiden, Paris 365 aurkari (17:30).

GIZON ERREGIONALA

16. JARDUNALDIKO EMAITZA

Lagunak B - Etxarri Aranatz 0-2

Kirol Sport - Lagun Artea 3-1

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Mutilbera C 39

3 Etxarri Aranatz 32

8 Lagun Artea 22

OTSAILAK 3, LARUNBATA

11:30 Lagun A - Beti Kozkor B (Zelai Berr)

16:00 Etxarri - Zizur (San Donato)

Etxarriren bolada ona, etenda

Etxarri eta Lagunak taldeek sailkapeneko bigarren postua zuten jokoan, Etxarrik galdutakoa. Zizur, sailkapeneko azkena hartuko du Etxarrik, bide onera itzuli nahian.

Lagunek Beti Kozkor hartuko du

Lagun Artea azken porrota alde batera utzi, eta Lekunberriko Beti Kozkor arerio zuzenaren kontra garaipena lortu nahi du.

Azken unera arte, zalantzan

PILOTA Zabaletak eta Altunak azkenera arte itxarongo dute Binakako hamabigarren jardunaldia jokatzeko moduan dauden erabakitzeke. Hiru jardunaldiren faltan, ia guztia dago erabakitzeke. Ezkurdia eta Tolosa ia aukerarik gabe daude, baina ez dute etsiko

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Binakako Txapelketako hamai-ka jardunaldi jokatu dira, eta sailkapena estu-estu dago. Jakak eta Mariezkurrenak finalerdietarako txartel zuzena lortu dute (9 puntu), eta beste txartel zuzena nork lortuko duen erabakitzeke dago. Etxeberria-Zabaletak eta Artola-Imazek zarpina puntu dituzte, Peña II.a-Albisuk, Altuna III.a-Martijak eta Elordi-Rezustak bosna puntu, eta Ezkurdia-Tolosak eta Laso-Arangurenak hiruna puntu. Beraz, geratzen diren hiru jardunaldiak tentsio handikoak izango dira, asko baitago jokoan.

Egoera korapilotsu honetan Zabaleta eta Altuna min hartuta egoteak Asperen Binakakoa maldan gora jarri du, eta Eibar-ko enpresan alarmak piztu dira. Zabaletak eskuin izterrean ziztada nabaritu zuen Labriten, eta oinazeekin jokatu behar izan zuen. Peio Etxeberriarekin batera, Jakaren eta Mariezkurre-



Ezkurdiak eta Tolosak hiru final dituzte aurretik. JOSE MARI LOPEZ

naren kontra 22 eta 10 galdu zuten. Eskuineko izterreko koa-drizepsean galkarga du, baina pilota aukeraketa egunean gaur, ostirala, Lasoren eta Urrutikoetxearen kontra Zornotzan jokatzeko konfiantza azaldu zuen

etxarrendarrak. Atzo hartu behar zuen erabakia.

Altunak zain bat du lehertuta ezker eskuinean. Martijarekin Lasoren eta Urrutikoetxearen kontra jokatuak partida gogorrean pilota bat eskura sartu

zitzaionean gertatu zitzaien, eta hala ere, bukaerara arte eutsi zuen, 20 eta 22 galduz. Igandean, Atano III.lean, Jaka eta Mariezkurrenaren kontra jokatzekoak dira Altuna eta Martija, eta Altunak bukaerara arte itxarongo du jokatu duen erabakitzeke.

"Oso zaila" dute

Ezkurdiak eta Tolosak Peña II.aren eta Albisuren kontra jokatu dute larunbatean Labriten. Igandean Artolaren eta Imazen kontra 11-22 galdu eta gero, play-offetara sailkatzeke ia aukerarik gabe daude. Geratzen diren hiru jardunaldietan garaipena lortu beharko lukete, eta euren arerio zuzenak galdu. Tolosan "gaizki" zeudela aitortu zuen arbizuarrik. "Zenbaki txarrrak ditugu, egia esan. Momentuz ez da nahi bezalako txapelketa atera, ez ditugu gauzak nahi bezala egin, eta buelta eman behar. Matematikoki play-offetan sartzeko aukera badago, baina oso zaila dugu. Hiru partidak irabazi beharko genituzke, gure arerioek galdu... egunez egun ikusiko dugu. Ea sentsazio onekin bukatzen dugun txapelketa, ahalik eta hobekien. Ilusio hori dugu behintzat.

Binakako B Seriean Iker Salaberriak eta Aaron Arbizuk 3 punturekin jarraitzen dute. Larunbatean, Labriten, Zubizarretaren orde zuzenaren den Joanek Bakaikoa eta Ugartemendia izango dituzte aurkari.

Emakumeak lagun, padelean

PADELA Igandean Sakana Padelek Mank-ek antolatutako Emakumeak Lagun Topaketen lehen saioa hartu zuen. Parte hartu zuten emakumeek padelean trebatzeko aukera izan zuten, goiz dibertigarria pasaz eta euren arteko harremana sendotuz. Hurrengo hitzordua otsailaren 25a da, Olaztin, areto futbol topaketa. Izena ematea zabalik dago, Mank-en, dohainik.



Ane Berastegi bigarren Tafallako podiumean

PISTA TXIRRINDULARITZA Espainiako Pista Kopako hirugarren proba baliagarria Tafallan kokatu zen. Juniorretan Ane Berastegi bigarren izan zen eta Siets Goikoetxea zazpigarren. Luca Martinez zazpigarren sailkatu zen kadeteen mailan

Maider Betelu Ganboa SAKANA Tafallako Miguel Indurain belodromoan mugimendu handia egon zen asteburuan. Larunbatean, VI. Espainiako Pista Kopako hirugarren trofeoa jokatu zen, Tafallako Hiria Saria. Sevillako Dos Hermanas eta Madrilgo Galapar trofeoen atzetik jokatu zen lasterketan Estatutik hurbildutako 160 txirrindulari baino gehiago lehiatu ziren Tafallan, pista txirrindularitzako probatan. Hiru sakandar izan ziren: Ane Berastegi Jaka arbi-zuarra eta Siets Goikoetxea Garde urdiaindarrak, biak Berastegi taldekoak, eta Luca Martinez Los Santos lakuntzarra, Sakana Group-Aralar taldekoa baina Nafarroako selekzioarekin lehiatu zena.

Luca Martinezek kadeteen mailan parte hartu zuen. Lehiatu zen probetan egindako lan fina kontuan hartuta, Top 10ean sailkatu zen lakuntzarra, gizonetzkoen kadeteen mailan zazpigarren.

Ane Berastegi eta Siets Goikoetxea junior mailan lehiatu ziren, bikain. Lan guztiak batuta, Izaro Etxarri (Andoain) izan zen txapeliduna, Ane Berastegi bigarrena eta Irati Mitxelena (JRG Norclamp) hirugarrena. Siets Goikoetxea zazpigarren



Ane Berastegi, ezkerrean, junior emakumezkoen bigarren pistard onena. MARTIN EARLY

sailkatu zen, Top 10ean. Nabarmenezkoa da taldekako garaipena Nafarroako lortu zuela.

Azkena, Valentzian

Espainiako Pista Kopan orain arte jokaturako hiru lasterketak kontuan hartuta, kadeteen gizonetzkoen mailan Marc San Martin (Balear Irlak) da liderra, 58 punturekin. Luca Martinez hamargarren postuan dago (25 puntu). Juniorren emakumezkoen liderra Izaro Etxarri da (56 puntu), Ane Berastegi bigarren (43 puntu) eta Siets Goi-

koetxea laugarren (40 puntu). Espainiako Pista Kopako laugarren eta azken proba otsailaren 4an jokatu da, igandea, Valentziako Luis Puiig belodromoan, Trofeu Ciutat de Valencia proba.

Bestalde, igandean, El Caserio Valsay Pista Trofeoa hartu zuen Tafallak, Nafarroako Kirol Jokotarako baliagarria. Haurren mailan Quesos Albenizko Ezkai Lakuntza hogeigarren sailkatu zen, eta kadeteen mailan Sakana Groupeko Erik Laiglesia laugarren eta Luca Martinez bederatzigarren.

Hemen daude Euskal Herriko paleta goma txapeldunak

PALETA GOMA Ogetan jokaturako finaletan, maila nagusian Irati Igoa etxarriarra eta Mainer Ardanaz izan ziren txapeldunak, eta kadeteetan Gure Pilotako Auritze Beltzak eta Onditz Gaintzarainek bere taldekide Lexuri Lazkozi eta Maialen Larrazari irabazi zieten

Maider Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Ilbeltzaren 27an Euskal Herriko Ezker Hormako Klubaren Arteko Paleta Goma Txapelketako finala jokatu ziren Gasteizko Ogeta pilotalekuan, Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzak (EPPF) antolatuta. Finalisten artean palista sakandarrek pisu handia izan zuten. Etxarri Aranazko Gure Pilota klubean trebatutako Irati Igoa Sesma etxarriarrak maila nagusiko finala jokatu zuen Mainer Ardanazekin bikoa osatuta, azken honen Auñamendi klubaren izenarekin parte hartuta. Eta nabarmenezkoa da kadeteen arteko finala %100 sakandarra izan zela, Gure Pilotako bi taldek jokatu baitzuten: Lexuri Lazkoz Ruizen eta Maialen Larraza Senarren taldeak, batetik; eta Auritze Beltza Beristainen eta Onditz Gaintzarain Berastegiren taldeak, bestetik.

Euskal Herriko maila nagusiko txapelak eta kadeteen mailakoak Sakanara etorri ziren. "Etxarriko Gure Pilotako harrobia oso indartsua da; txapelketa garrantzitsuetan finaletar iristeko aukerak dituzte Gure Pilotako palistek. Gure Pilotan gero eta pilotari gehiago daude, eta onak" azaldu du Irati Igoak.

Euskal Herriko onenak

Euskal Herriko Paleta Goma Txapelketan probintzia bakoitzeko palista onenek hartzen dute parte. "Elite mailan edo maila nagusian, Nafarroako Paleta Goma Txapelketako txapeldunek eta txapeldunordeek lortzen dute Euskal Herriko Txapelketan aritzeko txartela,

eta gainontzeko probintzietan ere. Beraz, palista onenak lehiatzen dira".

Gure Pilota klubekoa da, berez, Irati Igoa, baina Auñamendi klubaren izenean lehiatu zen. "Kontua da Etxarri Aranatzek, nire mailan, bakarra naizela. Ikasketengatik Naroa Otxoak aurten Hernanin jokatu du. Nafarroan nire kintadan sei-zazpi palista gara, eta, hortaz, txapelketak iristen diren bakoitzean gure artean adosten dugu txapelketa bakoitzean nola lehiatuko garen, dauden beharren arabera. Esaterako, Mendillorrikoak aurten Oberenara joan dira, Auñamendin soilik Mainer Ardanaz dago eta Etxarri Aranatzek ni neuz. Mainerrekin Nafarroako Txapelketa Auñamendi taldearen izenean jokatu genuela adostu genuen, eta hura irabazita Euskal Herrikoira joan ginenez, Auñamendirekin jarraitu dugu".

Nafarroako elite mailako palistek elkarrekin entrenatzen dute normalean, berdin du zein klubekoak diren. Oberenan entrenatzen dute normalean, "baina duela bi aste Nafarroako selekzioarekin prestaketan hasi garenez, NUP-en entrenatzen gara orain".

Igoa eta Ardanaz, ikusgarri

Euskal Herriko Paleta Goma Txapelketako maila nagusian bikain aritu dira Mainer Ardanaz eta Irati Igoa. Hasieran ligaxka jokatu zuten, hiru jardunaldi, eta ondoren final laurdenak, finalerdiak eta finala iritsi ziren. Partida guztiak irabazita



Luca Martinez. LUCA MARTINEZ



Junior mailako emakumezkoen proba bat, tartean sakandarrak. MARTIN EARLY

heldu ziren final handira; bertan Gasteizko Errekaleor klubeko Ruiz de Azua eta Martin izan zituzten aurkari. Final ikusgarrian, 21 eta 30 gailendu ziren nafarrak. "Finala espero baina errazago izan zen guretako, nolabait esateko. Bagenekien bikote potentea zela eta irabazteko ederki izerditu beharko genuela, baina partida hasieratik dominatuta izan genuen. Lortutako abantaila ongi kudeatu genuen, eta nahiko eroso ibili ginen. Ez genien gerturatzeko ere utzi. Oso pozik gaude" aitortu du Igoak. Abenduan Sakanako Pala Txapelketan finalerdian erori izanaren arantza kendu zuen etxarriarrak. "Etxarriko txapelketa hain da polita... pena handia nuen finalerdian erori izanagatik. Euskal Herriko Txapelketan amorrutik hori atera genuen, eta buelta eman genion".

Beltza eta Gaintzarain

Kadeteen mailako finala Gure Pilotako Lexuri Lazkoz-Maialen Larrazak eta Auritze Beltza-Onditz Gaintzarainek jokatu zuten. Oso final lehiatua izan zen, Beltzaren eta Gaintzarainen alde erori zena, 11 eta 15. Kadeteetan formatu ezberdina izan zuen txapelketak. Final laurdenak, finalerdiak eta finala jokatu zituzten. "Finala oso polita izan zen, oso borrokatua. Lau palistek maila handia dute, eta gutxigatik erabaki zen".

Frontoian giro ederra zegoen. "Lehendabizi kadeteen eta jubilen txapelketak jokatu ziren, gero gurea, maila nagusikoa, eta, azkenik, senior mailako mutilena. Gure Pilotako kadeteak gure partida ikustera geratu ziren, ni animatzeko, eta eskerrak, zale gehienak Errekaleorreko bikotea animatzera joan baitziren. Egia esan, oso gustura ibili ginen".

Trinketean, mutilekin

Orain Nafarroako Trinketeko Txapelketa Mistoa jokatzeko ari da Irati Igoa, neskak eta mutilak elkarrekin nahasita sortutako taldeen artekoa. Iratik Mainer Ardanazekin eta Manexekin jokatu du. "Horrela, Mainerrek ezin badu, edo nik Mulierrek futbol partida jokatu behar badut, bada Manexek ordezkatzen gaitu". Momentuz bi partida jokatu dituzte; bata irabazi dute, eta bestea galdu. "Oso gustura ari gara. Mutilekin jokatzeko maila

askoz ere handiagoa da, indarra ere handiagoa... izugarri disfrutatzen ari gara. Gure kategorian palista berberekin jokatzeko ohitura gaude, eta hau nobedade handia izan da. Mutilekin kontra jokatzearekin asko ikasten ari gara eta disfrutatzen dugu, beste maila bat dagoelako". Mutilekin ere iritzi berekoak dira. "Eurak ere beti elkarren artean lehiatzen dira, eta, esan digutenez, beraiendako ere oso pozgarria da gurekin jokatzeko. Eurek ere gutaz ikasten dute, disfrutatzen dute eta gustura daude".

Mulier futbol taldean, bikain

Irati Igoak paleta goma futbolarekin partekatzen du. Mulier taldeko jokalaria da, eta aurten oso ongi ari da Hirugarren Federazio FUTFEM mailan jokatzeko duen talde nafarra. Hirugarren Federazio FUTFEM kategorian sei multzo daude estatu osoan, eta Mulier bigarren multzoan dago. "Oso gustura gaude. Bosgarrenak gara sailkapen orokorrean, hirugarren taldetik 2 puntura. Lehen talde nafarra gara, Osasuna C eta Berriozar taldeen aurretik". Burgos, Salamanca, Errioxa, Santanderreko hiru talde, Eibar, Oiartzun, Añorga, Bizkerre, Arratia, Tolosa eta Mutilbera daude euren multzoan. "Gure helburua kategoriari eustea zen, eta hori aspaldi lortu genuen. Orain xedea partida guztiak borrokatzen jarraitzea da, ahalik eta gorenen sailkatzea".

Ilbeltzaren 27an Eibar liderra izan zuen aurkari Mulierrek, 16:00etan. "Partida oso borrokatua izan zen, baina zorte txarra izan genuen, gol bat ate propioan sartu eta gero 1 eta 3 galdu genuen. Baina oso denboraldi polita izaten ari da" dio Iratik. Etxarriarrak bere taldeko gol bakarra sartu zuen. Eta hori, berarendako partida ez zela oso ongi hasi kontuan hartuta. "lehendabiziko 3 minutuetan sekulako burukada eman zidaten eta bekaina zabaldu zitzaizkidan. Odola mara-mara hasi zen, eta gure medikuak puntuak jarri behar zizkidan, baina materialen bat falta zela, eta badaezpada ez zidaten josi. Gasak, apositoak eta benda jarri zidaten, eta hala jokatu nuen. Partida bukatu eta azkar-azkar joan behar nuen Gasteizera, 19:00etan pala finala jokatzera".

Pala finala bekainean partzea jarrita jokatu behar izan zuen. "Beldurra nuen ea mugituko ote zitzaizkidan eta odoletan hasi, baina nahiko ongi aguantatu zuen" dio, irribarrez. Futbol partida jokatzetik eta bekaina zabalik jokatu zuen finala, "eta ongi, e? Kristoren partida izan zen".

Larunbat goizean trinketeko partida du, eta igande goizean futbol partida, Monte Soccer Feminas taldearekin kontra, Santanderren. Guztia uztartzen "nahiko ongi" moldatzen da Igoa. "Orain arte, ez dut partidarik huts egin".



Irati Igoa eta Mainer Ardanaz, Euskal Herriko txapelkunak. EEPF



Gazteen eta kadeteen mailako Euskal Herriko Pala Txapelketako finalista. Auritze Beltza, Onditz Gaintzarain, Lexuri Lazkoz eta Maialen Larrazak, tartean. EEPF

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Euskaltel Euskadi taldeko aurpegi berrietako bat da Iker Mintegi Claver altsasuarra. Laboral Kutxatik profesionaletara egin du salto, UCI Pro Team mailara. Jorge Azanza Soto zuzendari altsasuarraren aginduetara debutatu du UCI World Tour mailako Mallorcako Challengean, eta amestutako debuta izan da: Challengeko lehen etapan, Calviá Trofeoan, hamaseigarren sailkatu zen altsasuarra, Top 20an, tropeleko onenen artean.

Afizionatuetatik profesionaletara igotzeko koxka hori, handia al da? Zertan nabaritzen duzu gehien?

Azkenean jauzi handia da. Zale-tasuna lan bihurtzen da, eta esijentzia handia da. Esango nuke alde handiena profesionaletan dagoen maila altua dela. Txirrindulari guztiek tropelean sekulako maila dute. Horretaz gain, abiadura asko nabaritzen da. Agian lehen, afizionatuetan, portu batean 10-20 txirrindulari atzean geratzen ziren, eta orain, profesionaletan, erritmo berberetan ez da inor atzean geratzen. Maila oso altua da, eta oso azkar joaten da.

Horretaz gain, egunerokotasunean ere aldaketa sumatuko da. Talde profesionalek baliabide gehiago dituzte, eta taldeei egiten zaien jarraipena ere bestelakoa da. Beste mundu bat izango da.

Alde horretatik ere nabaritzen da, bai. Taldea profesionala denez, baliabide gehiago ditugu; jende gehiago dugu gure ondoan guri laguntzeko prest. Azkenean, hori ere nabaritzen da.

Afizionatuetatik profesionaletara asko aldatu dira zure entrenamenduak? Kontuan hartuta Laboral Kutxatik zatozela, Euskaltelen harrobitik, agian ohitura edo molde asko aurretik bereganatuak zenituen. Hala ere, zer aldatu da gehien?

Urtez urte pausoak ematen joan naiz, denboraldi geroz eta gehiago entrenatzen. Azkenean, prozesu bat da. Laboral Kutxako afizionatuen lehen urtean, 18 urte nituela, ezingo nituzke aurtent egiten ditudan ordu berdinak egin edo asimilatu. Hau gutxika egin beharreko lana da. Urtez urte ordu gehiago sartzen dituzu entrenamenduetan. Lan espezifiko nahiko antzekoa dela esango nuke, baina egia da astez aste lan gehiago egiten dela.

Euskaltel Euskadin eskuadra gaztea zarete. 21 txirrindulari, 16 eskaldun, eta horietatik 12 harrobitik

"Profesionaletan zure tokia azkar topatzea da onena; horretan nago"

IKER MINTEGI CLAVER TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Txirrindulari altsasuarrak debut ikusgarria egin du profesionaletan, Mallorcako Challengean onenen pare arituz. Jada hurrengo lasterketan du burua



Iker Mintegi pozik dago profesional mailan egin duen debutarekin. EUSKALTEL EUSKADI

igo zaretenak. Alteako aurkezpenen plantilla orekatua zaretela nabarmendu zen, gazteek eta beteranoek orekatutakoa. "Bere bertsiorik onena" emateko prest dagoen taldea osatzen duzuela esan zuen Jorge Azanzak, "poz handiak" ekarriko dituzuela. Zer deritzozu? Talde polita ikusten dut; talde txikia gara, baina talde polita dugu. Beterano berriak etorri dira, maila oso altua dutenak, eta gazteok ere gutxika aurrerapausoak ematen ari gara, pausoz pauso. Harrobitik txirrindulari asko pasa garenez, aurretik ezagutzen dugu elkar, gehienak etxekoak gara, eta horrek ere gauzak asko errazten ditu.

Nolakoa da Jorge Azanza zuzendari gisa?

Orain arte bakarrik itzuli batean izan dut zuzendari (Mallorcako Challengea), baina azken urtetan prestatzaile izan dut eta aspaldiko ezaguna da. Oraindik ez dut lasterketa askotan berarekin bat egin, baina esango nuke oso zuzendari ona dela. Ez dut nik bakarrik uste; Mallorcako Challengeko lehen egunean, De la Partek esan zuen Jorge oso ona dela. Urte asko daramatza ho-

"GURE BERTSIORIK ONENA EMAN, ETA TALDEAREN IZENA ALTUENERA ERAMATEKO GAUDE DENAK"

netan, eta badaki lasterketa bakoitzean zer gertatu behar den, ia gehienetan. Esango nuke oso gutxitan okertzen dela. Etapa aurretik autobusean egiten dugun bileran esaten badu honakoa eta honakoa gertatuko dela, % gehienetan hori gertatzen da. Eta gazte izanda, horrek lasaitasuna ematen dizu. Berak esaten dizuna egiten duzu, eta gehienetan hala gertatzen da, eta horrek asko laguntzen du. **Zuen onena ateratzen saiatzen da.** Bai. Azkenean horretarako gaude denak, ahalik eta bertsio onena emateko eta taldearen izena ahalik eta altuenera eramateko. **Orain arte aurrean egotea, ihesaldietan sartzea eta gerra ematea gustuko zenuen. Profesionala izateak aldaketa ekarri du?**

Orain arte asko gustatu izan zaizkit ihesaldiak. Afizionatuen azken urtean agian ihesaldi gutxiago hartu nituen; lasterketako uanean unekoetan zentratzen nintzen. Profesionaletan asko irauteko zure tokia azkar aurkitzea hoberena dela esaten dute. Profesionaletan lau lasterketa besterik ez ditut egin, eta oraindik nire tokia bilatzen ari naiz, baina etapa gogorretan, bukaeran taldetxoak egiten diren horietan, uste dut ondo molda naitekeela. **Zure aurtengo helburua, beraz, zure tokia aurkitzea da.**

Bai, ikastea eta gutxika nire tokia aurkitzea. Egia esan, lehenengo lasterketa hauetan ongi sentitu naiz; tropelean joatea ez zait asko kostatu. Gutxika korritzeko modu berri honetara ohitzea da kontua, lasterketetara eta entrenamenduetara ohitzea, nire tokia aurkitzeko.

Berriki Itzulia aurkeztu zuten. Bi etapa Sakanan jokatu dira, apirilaren 3an Ezpeletan hasi eta Altsasun bukatzen den etapa bikaina, eta apirilaren 4an Etxarri Aranaztik abiatuko dena, Legution bukatzeko. Itzulian parte hartzea handia litzateke. Aukerarik ikusten duzu?

Oraindik ez dakigu zein txirrindularik parte hartuko duten, baina, azkenean, horri ez diot gehiegi begiratzen. Etxeko itzulia da, proba oso garrantzitsua, eta Euskaltel Euskadi ahalik eta talde hoberena ematen saiatuko da. Gauzak ongi egiten badituzte eta taldeak aukera ematen badituzte, etxean korritzea gutxitan ematen den aukera izango delako, baina ez naiz horrekin obsesionatzen. Taldeak eramaten banau, ongi, eta bestela ere, ongi.



Iker Mintegi Claver, Mallorcako Challengeko etapa batean, tropelean. SPRINT CYCLING AGENCY

TOP 20AN

World Tour mailako Mallorcako Challengean egin duzu debuta, maila gorenean. Lehendabiziko proban, Caviá Trofeoan, hamaseigarren sailkatu zinen, eta Euskaltel Euskadik primerako debuta egin zenuela adierazi zuen. Profesional gisa lehendabiziko lasterketan txirrindulari onenekin aritzea zirraragarria izango zen. Zer sentsazio izan dituzu?

Egia esan, oso pozik nago hasiera honekin. Banekien maila onean nengoela, baina gauza bat da etxean, entrenamenduetan, ongi sentitzea, eta beste gauza bat da lasterketan World Tour taldeekin benetan ongi egotea. Oso pozik nago izandako errendimenduetarekin eta bereziki lehenengo eguneko emaitzarekin, baina baita ere gainontzeko egunetan egindako lanarekin eta errendimenduetarekin. Dena den, bertan zaudenean ez duzu ere gehiegi pentsatzen. Ahalik eta hobekien egiten saiatzen zara, ahalik eta postu onena lortzen, eta listo. Baina oso pozik nago.

Munduko onenen ondoan lehiatzea eta maila ematea, sentsazio itzela izango da.

Bai, pozik sentitzen zara, eta azken hilabeteetan egindako lanak fruitua ematen duela ikusten duzu. Dena den, ezin zara horrekin geratu; hurrengoan pentsatzen jarraitu beharra duzu.

Zutaz gain, beste bi sakandar aritu ziren Challengean: Igor Arrieta, UAE Emirates talde berriarekin, eta Gorka Izagirre, Cofidis talde berriarekin. Beraiekin egoteko aukera izan zenuen? Nola ikusi dituzu?

Bai, beraiekin egon nintzen Mallorcan. Igorrekin Challengean aritu nintzen lehen hiru egunetan bat egin nuen, eta egunero hitz egin genuen pixka bat. Gorkarekin azken egunetan solasean egon nintzen tarte batean. Igor oso ongi ibili da Challengean, primeran, eta uste dut Gorkak arazo batzuk izan dituela, baina ongi aritu da baita ere.

Ilusioa emango du zure debutean, halako egoera batean, sakandarrekin topo egitea.

Bai. Irteera gunean, agian pixka bat urduri bazaude, lagun batekin hitz egiteak, lasaitasun horrek urduritasuna arintzeko eta ahazteko ere balio du.

Noizbait beraiekin edo Sakanako beste txirrindulariekin entrenatzen zara?

Egunaren arabera. Batzuetan zaila da gure entrenamenduak koadratzea, bakoitzak bere entrenamenduak dituelako. Azken egunetan ere etxean bat egitea ez da erraza izan, bakoitzak bere taldearekin kontzentrazioak izan ditugulako, edo lasterketak... baina Igorrekin bat egiten badut, edo Mulurekin, edo Gorkarekin... elkartzen gara.

Aurkezpenean Jorge Azanzak esan zuen lasterketa guztietan "hozka egitera" atera behar duzuela. Ahalik eta emaitza onenak lortu nahi dituzue Vueltako gonbidapena jaso ahal izateko. Presio hori nabaritzen al da?

Gu gure lana ahalik eta hobekien egiten saiatzen gara, beti. Taldearen asmoa denboraldia ongi hastea da, mailarik altuena ematea, gonbidapen horren bila. Jakina, guk gure eskuetan dagoen

PROFESIONALETAKO MAILA HANDIAK ETA TENTSIO UNEETAKO AZKARTASUNAK HARRITU NAU GEHIEN"

JORGE AZANZA ZUZENDARI ONA DA, GUTXITAN OKERTZEN DA. HORREK LASAITASUNA DAKAR"

"ONGI HASI NAIZ, BAINA EZIN ZARA HORREKIN GERATU; HURRENGOAN PENTSATU BEHARRA DAGO"

guztia egingo dugu lasterketa guztietan ahalik eta maila hobereana eman ahal izateko.

Zein izango da zure hurrengo lasterketa?

Otsailaren 10ean Figueira Klasiakoa jokatuko dut Portugalen, egun bateko lasterketa, eta gero Andaluziako Itzulian parte hartuko dut. Lasterketa horietan ahalik eta maila altuena eman beharko dugu denok.

Challengean zerk harritu zintuen gehien?

Dagoen mailak. Lehenengo portua oso azkar igotzea, eta atzean ez dela inor geratzen ikustea. Eta tentsio une edo puntuetan dagoen azkartasuna. Guztiek portura aurrean sartu nahi dugu, ongi kokatuta; pinganillotik ere guztioi esaten digute aurrean sartu beharra dugula, baina, jakina, ez dago guztiendako tokirik. Une horietan tropelean dagoen tentsioa, baina, aldi berean, segurtasuna. Oso eroriko gutxi egon dira halako tentsio puntuetan.

Une horiek urduritasun handikoak izango dira, ez?

Azkenean ere ez duzu gehiegi pentsatzen; gehiegi pentsatuko bazenu, ez zinateke ere aurrean sartuko.

Zer moduz sentitzen zara kamiseta laranjarekin?

Oso gustura. Ongi hasi naiz, eta orain horrela jarraitzea da tokatzen dena.

Gainontzeko sakandarrak, martxan



Mulu Hailemichael. RURAL

Mulu Hailemichael

Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Mulu Hailemichaelek Valentziako Itzulian hasi du denboraldia. Etxarri Aranatzen bizi den etiopiarra gogotsu hasi da. Vueltarako gonbidapena buruan, taldeak lanak ongi egin nahi ditu.



Igor Arrieta. SPRINT CYCLING AGENCY

Igor Arrieta

UAE Emirates taldeko uharte arakildarra Mallorcako Challengeko laugarren etapan onenen pare aritu zen: ihes egin zuen, eta eroriko batek ekidin zion etapa garaipenagatik borrokatzea. Valentziako Itzulian dago orain.



Gorka Izagirre. COFIDIS

Gorka Izagirre

Ziordiko bizilagunak Mallorcako Challengean mustu zuen errepideko denboraldia Cofidis talde berriarekin. Aurretik gripea izan zuenez, ezin izan zuen behar bezala aritu, eta dagoeneko datozen probetan du burua.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN.

Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 2

ALTSASU Hitzaldia.

Karme le Jai idazlearen hitzaldia, Altsasuko herri liburutegiaren 90. urteurrenaren barruan. Euskaraz.

18:00etan, lortia kultur gunearen areto txikian.

ALTSASU Gazte agenda.

Futbolin 2x2 txapelketa.

18:00etan, Intxostiapuntan.

OLATZAGUTIA Aurkezpena.

Sakanako Itaiaren *Indarkeria matxistarekin amaitzeko antolatutako proposamen politikoaren aurkezpena.*
18:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Gure Pilota elkartearen Nafar Kirol Jokoen pala partidak. Kimuak: Aldasoro – Baqueriza / Goyenaga – Olague; Moreno – Mendiaburu / Beraza – Goñi; Haurrak lehenengo liga: Campos – Garmendia / Erro – Iriarte; Haurrak bigarren liga: Salinas – Gastearena / Jaka – Marroyo.
18:30ean, Euskalerriri pilotalekuan.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Cualquiera menos tú gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Igandea 4: 19:30
Astelehena 5: 19:00

La tierra prometida gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Osteguna 8: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Perfect days zineforum filmaren emanaldia

Igandea 4: 19:00

OLATZAGUTIA Irakurle taldea.

Una educación Tara Westover idazlearen liburua.

19:00etan, liburutegian.

LARUNBATA 3

ALTSASU Bizikleta irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Ibis-Lezamen, 42 kilometro.

09:00etan, Zumalakarregi plazan.

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Gure Pilota elkartearen Nafar Kirol Jokoen partidak. Gazteak: Murugarren – Zubiria / Aldaz – Loiharte.

09:30ean, Euskalerriri pilotalekuan.

ETXARRI ARANATZ Urteurrena.

Naizen elkartearen bederatzigarren urteurren jai. Naizen elkarteak antolatuta, Etxarri Aranatzko Udalaren laguntzarekin. Jarduera irekiak jende guztiarentzako.

16:00 Circo Dabixiren zirku tailerra, frontoian.

18:00 Txokolate jana, frontoian.

18:30 Potx magoa, kultur etxeko areto nagusian.

IRURTZUN Mus txapelketa.

XV. Euskal Herriko Mus Txapelketa – Felix Mariñelarena Mus Txapelketaren kanporaketa.

16:30ean, Iratxo elkartearen.

ALTSASU Altsasuko liburutegiaren 90. urteurrena. **Ospatu gurekin! Dokumentu, objektu eta liburuen erakusketa.**

Otsailaren 29ra. Astelehenetik ostiralera 14:00etatik 20:00etara. Liburutegian.

ALTSASU Antzerkia.

Tarara Hika Teatroa konpainiaren antzeztanaren emanaldia, euskaraz.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Kontzertua.

Ganibet taldearen kontzertua.
23:30ean, Haritza tabernan.

IGANDEA 4

ALTSASU Bizikleta irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: Ergoiena, 48 kilometro.

09:00etan, Zumalakarregi plazatik.

ASTELEHENA 5

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.

12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEAZKENA 7


ALTSASU Tailerra.

Haurrendako tailerra Manolita Thunders artistaren eskutik, Altsasuko herri liburutegiaren 90. urteurrenaren barruan. Elebiduna.


17:30etik 19:30era, lortia kultur

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 2




Larunbata, 3



Igandea, 4



Astelehena, 5



Bazkide Zozketa

ILBELTZA

SARIDUNAK

Nekane Ortigosa Mujika (Altsasu)
Unai Hualde Iglesias (Altsasu)
M. Karmen Lopez de Goikoetxea Goikoetxea (Urdiain)
Josetxo Uribeetxeberria Flores (Lakuntza)

Erviti aluminio PVC

Kalitatea, harrera ona eta prezio ezin hobea

Akaborro industrialdia 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioseviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

IRAGARKI SAILKATUAK

IRAKASKUNTZA

KLASEAK EMAN

LH ikasleendako klase partikularrak: Aktiboan nagoen irakasle bat naiz eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Interesa baduzu deitu edo idatzidazu. 655 448 901.

GALDUTAKOAK/
OPATUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Xiaomi telefono urdina: Etxarri Aranatzen urtarriaren 25eko gauean galdu zen. Mesedez, opatu duenak BELEIXE IRRATIAN edo udaletxean utz dezala.

OPATUTAKOAK

Asteburuan Altsasuko plazan txano arrosa marradun bat topatuta: Jaso nahi duenak 634 437 155 telefonora dei dezala.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Sakanako Garapen Agentzian Europako proiektuen arduradun lanpostua betetzeko deialdia: Lanaldi osoa (32.190,36 euroko soldata gordinarekin) eta kontratu mugagabea. Unibertsitate ikasketak, euskara C1 maila titulua bidez aurkeztea edo frogatzea (euskara proba gaindituz), ingelesa ahoz eta idatziz B2 maila, gidabaimena eta ibilgailu propioa eta antzeko eginkizunetan bi urteko lan esperientzia izatea eskatzen da. Hautatutako pertsonaren eginkizuna Sakanako Plan Estrategikoan aurreikusitako jarduerak garatzea izango da (maila askotariko lkerketa eta Garapen programa aztertu ta zabaldu, proiektu estrategikoak kudeatu, SGAko lantalde teknikoaren koordinazioa, enpresen arteko elkarlana sustatu etab). Informazio gehiago nahi duenak SGA-rekin harremanetan jarri daitezke 647 864 239 telefonora deituz edo info@sakanagaratzen.com helbide elektronikora idatziz. Eskabideak Sakanako Mankomunitateko Lakuntzako egoitzan aurkeztuz, haren egoitza elektronikoa (labur.eus/ffufu) edo Sakanako Mankomunitatera gutuna bidaliz.

IKASTAROA

Olaztin jaiotzak egiten ikasteko hastapen ikastaroa: 16 urteko gorakoei zuzendutako ikastaroa Sakanako Jaiotzazaleen Elkarteak antolatuta. Izena emateko deitu 696 920 512 edo 606 227 612 telefonora otsailaren 16a baino lehen.

LEHIAKETA

Olaztiko Inauteriko II. Balkoi Apainketa Lehiaketan eta VIII. Mozorro Lehiaketan izen emateak zabalik: Balkoi apainketa lehiaketan parte hartzeko otsailaren 8a baino lehen udaletxera gerturatu edo olaztikoiho-teak@gmail.com posta elektronikora idatzi izen abizenak, telefono zenbakia eta helbide osoa emanda. Mozorro lehiaketan 14 urteko gorako kuadrillek, taldeek edo banakakoek parte har dezakete. Horretarako 699 635 187 telefonora Whatsapp mezua idatzi behar da otsailaren 15a baino lehen. Bi lehiaketan informazio gehiago eta oinarriak www.olazti.eus webgunean daude.

OHARRAK

Irurtzango Ihoten eguneko bazkarirako txartelak salgai: Otsailaren 10ean, larunbatean, ospatuko den herri bazkarirako txartelak Erga Larrea elkartearen erosi daitezke otsailaren 2an, 18:00etatik 21:00etara eta otsailaren 3an, 12:00etatik 14:00etara. Helduek 20 euroren truke eta 12 urte bitarteko haurrek 10 euroren truke.

Olaztiko ihoten herri bazkarirako txartelak salgai: Bazkaria (babarrunak sakramentuekin, torrijak, kafea eta kopa) otsailaren 10ean izanen da. Helduek 15 euro eta 12 urtera arteko haurrek 12 euro. Otsailaren 6tik aurrera erosten diren txartelak 20 euro balioko dituzte.

Aita Mariren 2024ko lehen erreskate misioa finantzatzeko 'crowdfunding' kanpaina martxan: Itsas Salbamendu Humanitarioak *crowdfunding* kanpaina hasi duela jakinarazi du Goteo plataformaren bitartez eta Fiare Banca Eticarekin lankidetzan. Informazio gehiago www.smh.eus web orrian. Parte hartze-

ko sartu ondoko link-ean: <https://www.goteo.org/project/barco-de-salvamento-aita-mari>.

Emakumeen bigunearren zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioko zabalpen zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp mezua zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Aralarko Santutegiko museoan bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoan ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

Nabarmendu zure iragarkia
Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275

JAIOTZAK

- **Ilargi Bakaikoa Lanz**, ilbeltzaren 23an Lakuntzan
- **Arane Mendinueta Razkin**, ilbeltzaren 23an Arbizun
- **Endika Etxetxikia Villegas**, ilbeltzaren 28an Irurtzunen

HERIOTZAK

- **Maria Anso Arbizu**, ilbeltzaren 19an Bakaikun
- **Jose Ramon Fernandez Larraza**, ilbeltzaren 19an Olaztin
- **Juan Azpiazu Altolagirre**, ilbeltzaren 25ean Etxarri Aranatzen
- **Maria Arrizabalaga Zabaleta**, ilbeltzaren 27an Altsasun
- **Jose Arlegi Zabaleta**, ilbeltzaren 28an Irurtzunen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Jarri zure iragarki laburra!
iragarki@guaixe.eus



ESKELA



Juan Azpiazu Altolagirre

Besarkada bat familiari

Aitorren lagunak



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskela@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- f Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Itzaletan eta argitan "etengabe" dantzan

Hika Teatroa konpainiaren 'Tarara' euskarazko antzezlanaren emanaldia izanen da bihar, otsailak 3, larunbata, Iortia kultur gunean. "Denetarik" duen ikuskizuna sortu dutela esan du Agurtzane Intxaurrea zuzendariak; "goi mailako ikuskizun bat"

E. C. M. eta E. R. B. ALTSASU

Testua irakurri zuen momentuan *Tarara* antzezlanarekin "maitemindu" zela esan du Agurtzane Intxaurrea ikuskizunaren zuzendariak. Egilea Josi Alvarado alikantearra da eta euskarazko itzulpena Arantxa Iturbek egin du; "oso irudi ederrak ditu, alde batetik oso lirikoa da, eta bestetik kaleko hizkuntza, kaleko pertsonaiak, oso almodoviarrak, oso koloretsuak, nolabait esateko agertzen dira, eta kontraste horrek erakarri ninduen". Intxaurreagak jarraitu duenez, protagonista goi mailako musikari bat da, biolinista, "eta musika obran benetako pertsonaia bat da". Musika aldetik ere kontrasteak daude: *Tarara*, *La Llorona* eta euskal kantu tradizioarekin goi mailako konpositoreen, Vivaldi, Hendel, Paganini eta abarren, musika konposizioetara; "eta dena zuzenean". Bihar, otsailak 3, larunbata, 19:30ean, *Tarara* antzezlanaren Iortia kultur gunearen areto nagusian izanen da. Sarrerak 12 eurotan eros daitezke kultur gunearen webgunean eta txarteldegian.

Harrera

Tarara antzezlanaren "opari bat" izan dela esan du antzerkigileak: "Bai guretzat, sortzaileentzat (zuzendari, aktore, egile...), baita publikoarentzat ere". Lanak "emanaldira" harrera "ezin hobea" izan du, eta hainbat sari jaso ditu, tartean Max Espainiako Antzerki Sarietarako zazpi izendapen izan zituen. "Besarkada polita izan zen, nahiz eta gero irabaztera ez iritsi". Publikoaren eta kritikari profesionalen iritzia "oso onak" izaten ari dira. "Alde horretatik gustura ari gara aurren berriro martxan dagoelako gure *Tarara*". Altsasukoa urteko lehenengo emanaldia izango da.

Hika Teatroa konpainiak ekotzi duen antzezlanak gai ugari



'Tarara' antzezlanaren une bat. UTZITAKOIA

'TARARA' KONTRASTE LAN BAT DA; BESTEAK BESTE, HIZKUNTZA LIRIKOA ETA KALEKOA UZTARTZEN DITU

YASMINEK ARGIA EMATEN DU: "GUREKIN NAHIKO GENUKEEN EMAKUMEA DA"

kontatzen ditu, zuzendariak azaldu bezala. Protagonista Rosa da, bederatzi urteko neska bat. "Guk Billboko San Frantzisko auzora ekarri dugu, hasierako lanean Alacanten kokatuta zegoelako". 1970ko hamarkadan kokatu dute, hain zuzen. "Denontzako ezaguna zen Sanfran horretan gertatzen da. Rosari biolin bat oparitu dio eta horrek erabat aldatu dio bizitza". Asko kontatu gabe, gertaera horrek oso mundu ilunera eramango du Rosa, eta otsoen aurka borrokatu beharko du.

Borroka horretan Yasmine prostituta, trabestia, izango du bide-lagun. "Kepa Errastik modu zoragarrian antzezten duen pertsonaia". Tania Fornieles, Eneritz Artetxe, Jundana Otxoa, Jose Cruz Gurrutxaga eta Adrian Garcia de los Ojos dira obran agertzen diren beste aktoreak.

Aberatsa

Tratu txarrak, sexu askatasuna, identitatea, adin txikienganako sexu abusuak eta abar gai "potoak" lantzen ditu lanak. "Nik uste dut modu batean garai hori usaintzea lortu dugula; Bilbo inguruko jendeak esan digu horrekin gogoratu direla".

"Aldi berean obrak izugarritzko argia dauka. Batez ere Yasmiren pertsonaiak eskaintzen duena". Lanaren zehar itzalean eta argitan "etengabeko dantza" dago. "Yas-

mine obra honetako argia da, denok gure ondoan nahiko genukeen emakumea".


Tarara obra "oso aberatsa" da bere osotasunean. Musika herrikoia eta klasikoa, hizkuntzaren aldetik euskalki desberdinak eta kaleko hizkuntza eta lirikoa agertzen dira, eta Intxaurreagak azaldu duenez, "espazio eszenikoa ere oso aberatsa da". Ikerne Gimenezek egin du eszenografia eta jantzien diseinua, eta argiak David Bernues eta Dani Blacoren lana izan dira. "Eszenografiak eta argiztapenak ikaragarritzko indarra dute". Obrak "denetarik" daukala esan du zuzendariak: "Testu on bat, sei aktoreen interpretazio zoragarria, espazioa bera ere oso zaindua dago, argiztapen zoragarria...". Goi mailako ikuskizun bat atera zaiela uste du.




BAZTERRETIK

ZIORDIKO LIBURUTEGIA

Ziordiko liburutegitik 3 gomendio:




1. Maitasun kapitala/ Carme Jaio
Maitasuna da Carme Jaioaren azken eleberriaren protagonista. Maitale baten azaletik dago kontatua eta maitatu zuen eta oraindik maite duen gizonarekin izandako bizipenaren oroitzapenetan murgilduko da. Unibertsitatean Tesia egitera hurbilduko zaion gaztetxo batek begiak irekiko dizkio gure protagonistari eta berak bizi izan duena ez dela benetako maitasuna ikusaraziko dio. Gizarteak maitasunarekin dituen harreman motak erakusten dizkigu eleberriak, eta nor bere buruari begira hausnarketara bultzatzen gaitu.



3. Aldamenekoa/ Ainara Gorostizu
Mujika Ainara Gorostizu kazetariak hamaika ate jo ditu, zenbait

komiki honetan. Gaia latza izanik, erabateko giro grisa lortzen du, istorioa txuribeltzean baitago kontatuta. Joe Sacco komikigile gaztea 1990eko hamarkadan Palestinara joan omen zen, eta han bizitakoa irudiekin azaldu zuen. Nobela grafiko hau korrante berri baten parte da, alegia, komiki-kazetaritzarena. Palestinaren egoera ezagutzeko eta ulertzeko ezinbestekoa.



2. Palestina/ Joe Sacco
Palestinaren historia ezagutzeko aukera daukagu

arraioirengatik beraien jaioterria utzi behar izan zutenen etxeetan. Haien ateak jo ditu edonoren aldamenekoak izan daitezkeen etxeetan, eta noski, gu beraien aldamenekoak. Liburu honen bidez idazlea saiatu da beraien esperientziak kontatuz aldameneko horiek bizilagun bilaka daitezkeen. Etorrinen ahotik bizipen gogorak, tristura, poztasuna eta egoera kontrajarriak jasotzen dira liburuan. Gure etxe ondoan bizi direnak hobeto ulertzeko liburu aproposa.



Idoia Granizo Uribarrena idazle altsasuarra. UTZITAKOA

"Letren munduaren inguruan mugitzen naiz"

IDOIA GRANIZO URIBARRENA IDAZLEA

'Gure esku balego bezala' narrazio laburrarekin Egile Berrientzako Literatur Lehiaketaren bigarren saria irabazi du altsasuarrak

Eneida C. M. eta E. R. B. ALTSASU Iruñeko Udalaren Egile Berrientzako XXXIII. Literatur Lehiaketaren narrazio laburra modalitatean bigarren saria irabazi du Idoia Granizo Uribarrena altsasuarrak *Gure esku balego bezala* lanarekin. Guztira, 21 lan aurkeztu dira, hamabi poesia atalean eta bederatzirako narrazioan. Epaimahaia Beatriz Chivite Ezkietak, Nerea Balda Sanjuanek eta Castillo Suarez Garciak osatu dute, eta Noelia Artazcoz Azcarate idazkari aritu da.

Bertsolaria zara, irakasle ogibidez, eta idazlea lanbidez noiztik?

Lanbidez dakit deitu ahal zaion, baina afizioa behintzat bai. Bertsoetan bezala, eta hizkuntza irakasle naizen heinean, nire bizitzak horren inguruan biratzen

"BIKOTE BATEN EGUNEROKOA KONTATZEN DU, BAINA PIXKANAKA ERROTIK ALDATUKO DA"

du; letrei lotutako edozer edo ia edozeri heltzea gustatzen zait. Orduan, mundu berdinarekin barruan ikusten ditut guztiak eta heltzen saiatzen naiz. Noiztik? Afizioa nik oroitzen dudanetik; betidanik, egia esan.

Ez da zerbait arrotza.

Letren mundua da. Bertsoetatik hein handi batean literatura egin daiteke. Eztabaidatu daiteke noraino iristen den muga eta hori guztia, baina azkenean elkar elikatzen dute bai bertsoak bai narrazioak. Ikusten da ber-

tsolari askok idazten dugula, idazten dutela, eta alderantziz ere; idazle askok akaso bertsoak idazten dituzte, bertsoa ere idatzi daitekeelako. Nik uste guztiak ibiltzen garela mundu horretan.

Irakurzaletasuna aspaldi duzu? Eragina dauka?

Bai, zalantzarik gabe. Askotan entzuten den kontu bat da idazle guztiak irakurle direla, eta idazten hasi aurretik irakurtzen hasi behar dela. Hortik elikatzen gara.

Nola eman duzu pausoa horrelako lehiaketa batean parte hartzeko? Istorioa aurretik zenuen edo lehiaketa zegoenez zerbait idazten jarri zinen?

Nik uste bietara egiten dela. Nik bietara egin izan dut. Batzuetan lehiaketa ezagutzen duzu edo horren berri iristen zaizu eta hori motibazio edo aitzaki horrekin idazten jartzen zara. Beste batzuetan ideia bat etortzen zaizu, narrazioa egiten duzu, eta narrazio hori gordetzen duzu lehiaketara aurkezteko. Nire kasuan, kasu honetan, ideia etorri zitzaidan. Lehiaketa honen deialdia oso goiz irekitzen da, eta hilabete asko dituzu idazketa planteatu bat egiteko. Niri ideia bat etorri zitzidan, eta narrazio hauei laburra deitzen zaien arren, gutxieneko bat eskatzen dute. Ideiak luzatzeko eta oinarrietara egokitzeko aukera ematen zuela ikusi nuen, eta etorri zitzaidan ideia hori lehiaketara egokitzen saiatu nintzen. Pixka bat bietatik.

Narrazioa itsasargi batean kokatu duzu. Zergatik?

Ez dakit. Irudi hori etorri zitzaidan oso argi hasieran. Narrazioaren hasieran Julio Cortazarren eta Uxue Alberdiren aipu batzuk daude, eta narrazio horietan inspiratuta egin nuen nirea. Haiek baserri giroan girotzen dute haien narrazioa. Euskal Herria izatea nahi nuen eta baserria eta mendia dira gure paisaia idiliko hori, baina uste dut Euskal Herriak ere baduela itsasoa, eta kontraste hori eman nahi izan nion.

Zer kontatzen da?

Bikote baten egunerokoa kontatzen da, baina eguneroko hori

"LEKUA, EKINTZA ETA PERTSONAIAREN EMOZIOA KONEKTATZEA EZINBESTEKOA ZEN"

pixkanaka eta ia oharkabean errotik aldatuko duten hainbat pertsonaia agertzen dira istorioan. Tartekatzen doaz pertsonaia horien bizipenak eta puntu konkretu bateko errealitateak. Istorio asko nahasten dira aldi berean.

Deskribapenek garrantzia handia dute. Kontzienteki egindako zerbait da?

Etxe baten barruan gertatzen da narrazioa, eta etxe horren deskribapena eta etxe horrek zituen espazio guztien deskribapena oso garrantzitsua zen nolabait irakurleak bisualizatzeko zer kontatzen ari zen. Erabat lotuta zihuan normalean geratzen ari zena, pertsonaiaren sentimendua eta nola sentitzen zen momentu horretan, espazio berarekin. Leku bakoitza hautatu nuen ekintza bakoitzera, pertsonaia hori momentu horretan nola zegoen kontuan hartuta. Hiru gauza horiek konektatzea ezinbestekoa zen.

Idazleen aipamenei irakurleari zerbait iradokitzen dio?

Alde batetik, Uxue Alberdi aipatu nahi nuen niretzat irakurle gisa erreferente erabatekoa delako. Alberdik badu narrazio bat Julio Cortazarren *La casa tomada* oinarrituta, eta Julio Cortazar karreraren ezagutu nuen. Uxue Alberdi lehendik deskubritu nuen, baina Julio Cortazar deskubritzeak beste Uxue Alberdi bat deskubritzeko aukera eman zidan. Berriz irakurri nuen bere lana eta gauza askoz gehiago ikusi nituen. Bi horiei aipamena egin nahi nien hortik atera delako hein handi batean nire narrazioa. Bi esalditxo horiek oso ongi definitzen dituzte haien istorioetako protagonistak, eta nire narratzailea ere bere bikoteak agintzen dion horretara eramaten uzten da. Hori aztertuta, bi aipu horiek sartu nituen.

Aurretik narrazio laburretan trebezia zenuen?

Bai narrazioan eta bai poesian. Oso desberdin idazten da. Egia da narrazio laburra deitzen zaio, eta hemezortzi folio ditu. Istorio motzagoetan ibilia naiz. Gehienez hamar bat orri. Muga hori pasatzea ere erronka bat da.

Sari honek gehiago idazteko motibatuko zaitu?

Bai; zalantzarik gabe. Hau egieta gustatzen zaigunoi idazten jarraitzen dugu. Horrelako sariak zerbait ongi egiten zaren seinale dira, eta jarraitzeko motibazioa.



Olaztiko kintoak ospakizunen lehen egunean.

"Kintoetan zerbait falta zela bezala zen"

Otsailaren 1etik 5era egingen dituzte kinto ospakizunak 2005ean jaiotako Olaztiko hemezortzi kintoek. Gaur, otsailak 2, egun handia dute: herriko zortzikoa dantzatuko dute. Santa Agedarekin bat egiten duten lehenengo aldia da

Erkuden Ruiz Barroso OLATZAGUTIA

1 Nola antolatzen zarete Olaztiko kintoak?

Denon artean antolatzen gara eta bilerak egiten ditugu. Udan, gutxi gorabehera, kontu korrontea ireki genuen banke-txean, eta hilabetero zerbait sartzen joan gara, zapiak eta txapelak erosteko.

2 Aurreko urtetan elkartzen zarete?

Bai. Prekintoak eta pre-prekintoak. Normalean kinto izan baino bi urte lehenago herrian bazkaria egiten da, eta aurreko urtean sagardotegira joaten gara.

3 Zortzikoa dantzatuko duzue. Noiztik egiten dute kintoek zortzikoa?

Aurten lehendabiziko aldiz kinto ospakizunetan. Herri inauterietan egiten zuten kintoek zortzikoa, baina aurten esan genuen: "Zergatik ez dugu kintoetan egiten?". Animatu gara.

4 Zergatik erabaki zenuten?

Espontanea izan da. Kinto asko gara, normalean gutxiago

izaten dira, eta herri inauterietan bakarrik bi pertsonak, bikote batek, dantzaten du. Orduan, kinto gehiago dantzatzeko aukera izan zen.

5 Zenbatek egingen duzue?

Lauk: Joane Garciak, Olatz Badosek, Julen Martinezek eta Harri Landak. Eta inauterietan, bik, Maddi Goiak eta Mara Gomezek dantzatuko dute. Guztira, seik.

6 Nola aukeratu dituzue nortzuk izanen ziren dantzariak?

Nahi izan duena animatu da; ez dugu zozketarik ez beste ezer egin.

7 Nolako da Olaztiko zortzikoa?

Bi dantza bezala dira, neskek eta mutilek egiten dituztenak, dena den, gaur egun ia denok egiten dugu. Batek dantza bat

egiten du, eta besteak beste bat. Bi pauso, beste bi pauso eta gero beste pauso bat. Ondoren, jota eta porrusalda. Zortziko batean bik egiten dute; tarteka, lehenengo batek eta gero besteak. Zortzikoak bost minutu inguru irauten du, eta gero jota eta porrusalda egiten dugu.

8 Aurretik ezagutzen zenuten? Nola ikasi duzue?

Olatzek aurretik ezagutzen zuen. Plazan ikusteagatik eta aurreko urtean gaztetxeak dantza tailerra antolatu zuelako, eta zerbait ikasi genuen. Baina oso gaineratik. Bideoen bidez eta abar ari gara. Azken entsegura herriko emakume bat etorri zen dantzarekin laguntzera.

9 Zer suposatzen du zuentzat kinto ospakizunetan zortzikoa dantzatzek?

Tradizio bat da, eta guretako garrantzitsua da. Herri inauterietan egiten da, baina kintoetan ez dantzatzen zerbait falta zela bezala zen. Oso urduri gaude, baina gogotsu. Kinto ospakizunengatik ere. Azkenean txikitatik kintoak ikusten ditugu eta iristeko zain zaude.

10 Nola jantzen zarete? Zerbait berezia eramaten duzue?

Baserritarrez jantzen gara, eta kintotako zapia eta txapela egin dugu.

11 Zortzikoaren aurretik eta ondoren parranda. Nola kudeatuko duzue?

Gainera, bost egun dira. Altsasun ere bost egun dira, baina tartean atsedean egun bat izango dute. Behintzat zortzikoa bigarren egunean da, beraz, ongi.

MATRIKULAZIO KANPAINA

2024-2025

ZUEN IKASTETXERAKO BEHAR DUZUEN MATERIAL GUZTIA

619 821 436 - 948 564 275
 info@gk.munikazioa.eus - Foru plaza, 23-1. Altsasu